

# itsasondo<sup>2.0</sup>

Herriko Aldizkaria ((( 28. zk ))) Apirila-Ekaina 2015



*Euskararen kupeletik,*  
**txoooooooootx!**

Elkarrizketa: Axintxio Iturriotz  
Ibilaldia: Gabiria-Ormaiztegi-Gabiria  
2015eko Udal aurrekontuak



**N**egua luze eta umel joan denik ezin uka; erreken emariari errezeloz so jardun gara, hain beharrezkoa dugun urak hondamenik sortuko ote duen beldurrez. Baina denboraren joan etorrian, udaberria ere ate joka daukagu eta lehenengo argi printzek borbor berezi bat sortu digute barrenean; natura ere negu luzetik hasperenka esnatzen ari zaigu; arboletako izerdia eta hosto jaio berriak horren seinale.

Itsasondon berriz, zaharrak berri esaera ezin hobeto datorkigu; izan ere, Itsasondok herri bihurtu zela 400. urtemuga bete berri du. Zorionak denei ba!

Eta ziklo guztiek hasiera eta amaiera bat izaten dutenez, orain dela ia lau urte hasitako udal legealdia ere amaierara iristear da. Gauza asko gertatu dira lau urte hauetan, eta egin ere, asko egin denik ezin uka, eta ahal bezain ondoen egiten saiatu direnik ere ez dugu zalantzan jarriko. Orain herritarren txanda da, maiatzean egingo diren udal eta foru hauteskundeetan bozka emanez beraien ahotsa izango dute. Itsasondok irabaz dezala!!

Itsasondo 2.0. aldizkariaren 28. alea aurkezteko unea da; edukiz gainezka datozen orriak beste behin ere. Udaleko berrietan diru kontuak nagusi, 2015. urteko aurrekontuetan gure sosak zertara bideratuko diren azalduko digute. Eskolan Itsasondoren 400. urtemuga ospatuz, aspaldiko lanbide zaharrak ikasten aritu dira; nondik gatozen jakitearen garrantzia, nora joan nahi dugun jakiteko. Haur Eskolakoez aldiz, beraien txokoak ezagutzera gonbidatzen gaituzte; ongi etorri denei! Zaharrak berri atalera berriz Axintxio Iturrioz ekarri dugu. Labur esatekotan: kamioia eta bizikleta gainean eta ibili munduan; bere kontakizun eta bizipenak, momentu on bat pasatzeko aitzakia bikaina.

Eta horretaz gain, etxe barruan egiteko ekintzak izan dira nagusi: txokolate jana, torrada lehiaketa, bingoa... Hala ere, ausartu gara kalera irten eta Olentzero kantari egitera, Ijito eguna ospatzera eta txangoa egitera ere.

Euskararen festa den KORRIKAK ere ez du huts egin Itsasondoko zitara, pausoz pauso Euskaldun garaia ozen aldarrikatzeko aukera paregabea izan da.

Gainontzeko edukiak zuek begiztatu ditzazuen proposatzen dizuegu; une lasai bat hartu eta aldizkariko orrietan barna nabigatu ezazue.

Eta honekin, hurrengo alera arte agurtzeko unea iritsi zaigu. Ordura arte bizitzaz eta naturaz gozatzeko parada ez dezazuela alperrik galdu. Bizi bizitza! ■



## Aurkibidea

- 03. **Udaleko berriak**
- 04-05. **Eskola:** Aintzinako lanbideak
- 06. **Haurreskola**
- 07. **Haurren herria:** Itsasondotik txangoa
- 08. **Gazteria**
- 09. **Gazteak:** Hezkuntza erreforma
- 10. **Ongizatea:** Famili bitartekaritza
- 11. **Kale inkesta**
- 12. **Jubilatuak**
- 13. **Guraso elkarteak**
- 14-20. **Elkarrizketa:** Axintxio Iturrioz
- 21. **Informatika:** Windows (II)
- 22-23. **Ibilbidea:** Gabiria-Ormaiztegi-Gabiria
- 24-25. **Bularreko minbizia:** 12 sintoma
- 26. **Aranzadi:** Gure basoen historia laburbilduz
- 27-29. **Hemeroteka**
- 30. **Ingurunea eta errezeta**
- 31. **Liburuaren txokoa / euskararen atala**
- 32. **Oharra.** Kultur agenda

## Sarrerako bertsoak

Doinua: *Ara non diran*

Ara non diran, udaletzeko aurrekontu ta bandoak eskolan berriz, txokorik txoko ekimen bizi sendoak, gure herriko laurakun urteak gertakariz majo joak mintzatu bitez nekatutako eskuak eta zangoak .

Ara non diran Itsasondoko baso ta mendi bazterrak, gure ijito izaeraren nagusi eta maizterrak, emakumeen aldarrikapen arrazoizko bezain fierrak denak batera garraiatuko ditu Axintxo txoferak.

Ara non diran martxoak zortzi izeneko ospakuntzak, torradak janez, mus txapelketan denak ez dira hitz hutsak, Itsasondotik Neuw Yorkera bizitako aldakuntzak zabaldu eta konta ditzala gozo/gazi denen kuxtak.

# Udal erabakiak

Azken 3 hilabetetan udalean landu eta erabaki diren gaien azalpena egiten da hurrengo lerroetan. Abenduaren 18an egin genuen urteko azken batzarrean 2015eko aurrekontua onartu genuen. Aurrerago ikusiko duzue onartutako aurrekontuaren laburpena.

Donostiako Administrazioarekiko Epaitegiak, aktak euskaraz bakarrik bidaltzen zirelako errekurtsioa aurkeztu zuen Udalaren aurka. Abenduaren 18ko batzarrean, errekurtsioa kentzeko eta gastuak ekiditeko modu bakarra akten erresumena erdaraz ere bidaltzea zela ikusi ondoren, hori egitea erabaki genuen.

2014ko aurrekontuko zenbait partidetako kredituak aldatzeko erabakia onartu genuen; 16.000 euro gehiago izango ditu 2015ko aurrekontuak.

## Eskatutako laguntzak

- Herri Eskolan obrak egiteko diru-laguntza eskatu da, eta guztira 25.755 euroko zenbatekoa duten proiektuak aurkeztu dira.
- San Juanen, Anaien eta ondoko putzura doan ur hodia konpontzeko laguntza eskatu zaio Goimen elkarteari.

## Jasotako laguntzak

Eusko Jauriaritzari Biodibertsitate atalean, 2015 eta 2016 urteetan Landa eremuan kontserbaziorako ekimenak izeneko programa gauzatzeko 20.764,77 euroko laguntza emango digutela jakinarazi digute.

Liburutegiko laguntzak jaso dira irakurzaletasuna sustatzeko eta Liburu berriak erosteko; guztira, 1.180 euro.

Murumendiko Natura eremuko kontserbazio ekimenak finantzatzeko laguntza eskatu zaio Foru Aldundiari, eta baita, Goimen Elkarteari ere. Foru Aldundiak 6.486,57 euroko laguntza eman du.

Herri Eskolako argiteriaren eta herriko argiteri publikoaren auditoria lanak egin dira. Lan hauek finantzatzeko EVEk 5.210 euroko laguntza eman du.

## Beste erabaki batzuk:

- Jaso ondoko kanpo udalaren izenera pasatzeko tramitean dagoen espediente osatzeko dokumentazioa bidali da.
- Sorabil baserrian berrikuntza obrak egiteko baimena eman da.
- Gizarte larrialdietarako zenbait laguntza onartu dira; guztira, 320 euro.

- 2014ko 4. hiru hilabeteko ur errolda onartu eta kobrantzan jarri da.
- 2015eko ibilgailuen gaineko zirkulazio zergaren errolda 54.253,59 euro onartu da, eta kobrantza epean jarri da. Ordainketarako epea datorren apirilaren 30a bitartekoa izango da.
- Langileen lan poltsa berritzeko deialdia egin da eta Javier Azurmendi kontratatzea erabaki da.
- Faktura elektronikoak jasotzearen aldeko erabakia onartu da; eta horretarako, Aldundiak prestatutako sistema-rekin bat egitea erabaki da.
- Herrian kultur ekintzak edo beste zenbait jarduera burutzen dituzten elkar-teen alde emango den diru-laguntza zenbatekoa erabaki da; guztira 8.714,13 eurokoa izango da.■

## 2015eko AURREKONTUAK

### INBERTSIO TAULA (Aurrikusten dena)

|                                         | Inbertsioa       | Diru-laguntza    | Ekarpena        |
|-----------------------------------------|------------------|------------------|-----------------|
| Argiteria                               | 152.000 €        | 40.248 €         | 41.751 €        |
|                                         |                  | 40.000 €         |                 |
|                                         |                  | 30.000 €         |                 |
| Ingurune eta landa eremua 15-16         | 40.7330 €        | 24.000 €         | 10.733 €        |
|                                         |                  | 6.000 €          |                 |
| Kale Nagusia 7-19 bitarteko urbanizazio | 10.000 €         |                  | 10.000 €        |
| Eskoletan berrikuntza obrak             | 6.000 €          |                  | 6.000 €         |
| Plazako obra                            | 8.000 €          |                  | 8.000 €         |
| Pantailak aldatzea                      | 8.000 €          |                  | 8.000 €         |
| Herri eta tabernarako mahai eta aulkiak | 2.000 €          |                  | 2.000 €         |
|                                         | <b>226.733 €</b> | <b>140.248 €</b> | <b>86.484 €</b> |

### Uteroko diru-sarrera eta gastuetaz aparte:

1. Aurtengo errolda nagusia herriko argiteri sistema aldatzea izango da, kontsumoa %85a jaitsi eta argiteria eraginkorragoa izateko.
2. Kale nagusiko urbanizazio obra bideratu behar da.
3. Plaza errepide ondoan dago; hortaz, umeentzat ziurragoa izan dadin, azterketa eta moldaketa egin behar da.
4. Gainera, herriko eta tabernako mahai eta aulkiak ordezkatu beharra dago; hori dela eta, berriak erostea erabaki da.
5. Informazioa helarazteko pantailan eta beraien sisteman aldatetako egin behar dira, hauek hobetzeko helburuarekin.

### Udal foru fondoa:

Bestalde jakin aurretik GFAren Udal Foru Fondotik (diru-sarrera iturri nagusia) jasoko duguna 417.562€ direla. Aurreko urtean 417.561,89€ jaso genituen, eta 4.176,61€ itzuli dizkigu GFAtik egindako aurkispunak ezkorregiak izan zirelako.

## SARRERAK

|                                         |           |
|-----------------------------------------|-----------|
| Zergak                                  | 132.600 € |
| Obra baimenak                           | 2.100 €   |
| Tasak                                   | 104.970 € |
| U.F.F. aren ekarpena eta diru-laguntzak | 470.796 € |
| Errentak-interesak                      | 17.500 €  |
| Orubeen salmenta                        | -         |
| Diru-laguntza proiektu handi            | 82.434 €  |
| Kreditu gehiagarriak finantziatz        | -         |
| Epe luzera jasotako maileguak           | -         |

**810.400 €**

## GASTUAK

|                                        |                  |
|----------------------------------------|------------------|
| Pertsonala                             | 220.300 €        |
| Gastu amankomunak (argiteria, ura...)  | 255.831 €        |
| Interesak mailegu                      | 3.550 €          |
| Dirulaguntzak eta erakundeei ekarpenak | 114.512 €        |
| Inbertsio gastuak                      | 203.207 €        |
| Transf. landa gipuzkoa                 | -                |
| Epe luzerako maileguak amortizatzea    | 13.000 €         |
|                                        | <b>810.400 €</b> |



# Aintzinako lanbideak

*Jakin badakigu lanbide asko jadanik ezin direla berreskuratu. Aurrerabidea aurrera doa errukigabe. Eta lanbide haiei asko zor diegulako egindako lana da hau. Dena den, zor handiegia litzateke, gainera, gure lehenaldia izan zena zeharo ahazten badugu, ziurrenez gaur garena zehaztu zuen lehenaldi hura eta, zalantzarik gabe, gure etorkizunean itzala utziko duena. Eskerrik asko!*



## Harakinak

Mendeetan zehar familia burua izaten zen etxerako abereak hil eta zatitzeko arduraduna. Baina, gerora poliki-poliki harakin lanbidea sortu zen. Erroman lanbide hau "gizon libre eta errespetagarriek hartu zuten hasiera batean. Horiek haragia txikizka saltzeko postuak jarri zituzten fama txarreko auzo batean; auzo horrek hain zeukan ospe txarra bertara sen oneko emakumerik ez zen joaten; emakume esklaboak baino ez ziren joaten haragia erostera. Alabaina, gizon libreak ohiz joaten ziren beren esklaboen ordeztu".



## Ogigileak

Ogia funtsezko jakia izan da gizakiarentzat ia historia osoan. Hori diote garai askotako dokumentuek, ogia oso garrantzitsua izan baita bai erlijioetan, literaturan edo pinturan, baita esateretan edo erotismoan ere. Ogiaren jatorriari eta historiari buruz era guztietako kondairak daude, baina lehen ogi labealdiak Egiptoarrek egin zituztela uste da, uztar basatiak (garia, garagarra, artatxikia eta bestelakoak) aprobetxatuz.

Mendeetan zehar, ogia egiteko erabiltzen ziren teknologiak garatzen joan ziren, baina ogiak funtsezko sostengu-elikagai izaten jarraitu zuen, eta garai batzuetan herrien zibilizazio-maila neurtzeko ere erabiltzen zen.





## Perratzaileak

Usadioz, gizakiak animaliak erabili izan ditu pertsona eta gauzak garraiatzeko. Horregatik, zaldi, asto eta mandoen apoak eta idien nahiz behien orpatxak babestu behar ziren, horiek higatzea ekiditeko. Horretarako hainbat baliabide ezberdin erabili izan dira, baina seguru asko erabiliena ferra edo perra izan da. Tresna horiek, aurreko eta atzeko hanketara ondo lotuta, apoak baldintza onetan mantentzea laguntzen zuten.

Euskal Herrian, lan horretan aritzen zirenak ferratzaile edo perratzaileak ziren, eta askotan ferrak ere egiten zituzten artisauak ziren. Azken urteetan, eskariaren gainbeheraren ondorioz, ferratzaile kopurua nabarmen gutxitu da. Izan ere, nekazaritza lanak mekanizatu egin dira, eta gaur egun, idi probetan aritzen diren idiek bakarrik behar izaten dituzte artisau horien zerbitzuak. Horregatik, ez da harritzekoa gaur egun lan horretan aritzen diren artisauak nahiko zaharrak izatea. Denek gaztetan ikasi zuten lanbidea, eta erretiroa hartzen dutenean garai batean horren eza-guna zen perratzailearen irudia desagertu egingo da.

## Zapatagileak

Historian zehar, gizakiek beren oinak, horren sentikorrek izanik, babesteko era guztietako jantziak garatu zituzten, gaur egungo oinetako konplexu eta seguruetara iritsi arte. Prozesua etengabea izan da, eta zapatari artisauei esker egin du aurrera.



## Saskigileak

Giza garapenaren ondorioz, produktu edo material ezberdinak bildu eta eramateko premia sortu zen. Horretarako, saskiak erabiltzen hasi ziren. Saski horiek, malguak ziren material begetalak gurutzatuz egiten ziren, batzuk besteekin lotuz. Denboraren poderioz, gizakiak bere beharretara egokitu zituen, material eta teknika berriak erabiliz, baina eskuz egindako lanaren funtsa galdu gabe. Saski moten artean, gaztainondoaren adarrak erabiltzen dituenak da guri gehien interesatzen zaiguna, hori baita gure Herrian erabilitako teknika.

## Sagardogileak

Sagardo hitza gaur egun ez da edari baten izen hutsa. Sagardoa aipatzeak, joera zahar eta berriak dakartzagu... sagardoa ohitura zaharrak dira; txalapartaren oihartzunen buelta. Sagardoa, bertsozale guztiak, ase eta freskatzan dituen iturria izateaz gain, bertsoa da. Sagardoa azti, sorgin pitargile eta modernoan edaria da. Sagardoa, kaletarren inbidia eta baserriarren gutizia ohoretsua da. Sagardoa magia da. ■





# Haur eskolako txokoak ezagutzen

Gure haur eskolako egunerokotasuna gehiago ezagutzen joateko, gure txokoak nolakoak diren erakutsi eta bertan zer egiten dugun azalduko dizuegu.

**Haurrak esnatzen direnetik gauean loak hartzen duten arte, etengabe informazioa jasotzen ari dira. Horrez gain, beraien gorputzak uneoro gelditu gabe daude mugimenduan, beren motrizitatea hobetzen eta fintzen; eta, hain zuzen ere, horrexegatik dira beharrezkoak erritmo azkar hori baretu eta**



**atsedena hartzeko une eta guneak. Lasaitasunerako tartetxoa izateko lekuak beharrezkoak direla uste dugu, eta horrexegatik daukagu haur eskolan «lasai txokoa» deitzen diogun gunea. Haurrek oso ondo ezagutzen dute gune hori, eta ondo dakite bertan goxotasun eta lasaitasunaz goza dezaketela.**

**Txoko horretan eguneko une asko igarotzen dituzte. Goizean, egunari hasiera emateko, bertan borobilean jarri, elkarri egun ona eman eta nor etorri den eta nor ez ikusten dugu. Horretarako, zenbait abesti ditugu eta pixkanaka haurrek abesti hauek ere ikasi egiten dituzte. Handitzen doazen heinean, elkarriketak sortzen dira gure artean, eta besteak beste, bezperan zer egin**



**duten kontatzen digute. Ondoren, ipuin bat kontatzen diegu. Ipuina, normalean, landu nahi dugun gai batekin lotuta egoten da, eta haurrek honela hiztegia ikasten dute. Gero, Pattin ize-neko gure haur eskolako maskotak, haurrei hamaiketakoak ekartzen die (opiltxoak, fruta, flautatxoak...). Eta azkenik, abesti desberdinak kantatzen ditugu elkarrekin. Momentu goxoa izaten da.**

**Egunean zehar, behin eta berriz egiten dituzte joan-etorriak txoko horretara. Bertan, hainbat liburu dituzte, nahi bezala irakurri eta begiratzeko. Behin eta berriz irakurri eta begiratu ostean, eurek ere ipuinak edo ipuinen pasarteak kontatzen hasten dira pixkanaka. Lasai txokoan Kuxinak ere izaten dituzte, bertan lasai-lasai egon, eta noizean behin, lo kuluxkak egiteko.**



**Bukatzeko, txoko honekin lortu nahi diren helburuak zerrendatuko dizkizuegu. Hona hemen helburuok: haurrek atentzioa jartzea, memoria lantzea, bere barruarekin kontaktuan jartzea, harremanak lantzea, ondokoa errespetatzea, orokorrean elkarbizitzako arauak ikasten joatea eta atseden hartzea.■**

# Itsasondotik txangoa, Itsasondo, haurren herria

**Itsasondoko Gaztelekuko nerabeek buru-belarri dihardute beraien egitasmoak aurrera eramaten. Hona hemen, hiru hilabete hauetan egin ditugun ekimenak.**

**N**olako herria nahi dugu? Nolako haurrak nahi ditugu? Nolako pertsonak? Herrian txangoa egin eta galdera horiei denon artean erantzuteko, urtarrilaren 24an bildu ginen, "Haurren Herriko" egitasmoaren barruan.

Goizean, Itsasondo zuritu egin genuen zuri koloreko kamisetekin, eta plaza kolorez bete genuen "parakaidas" izeneko jolas kooperatiboarekin. Goiz hotzarekin, baina bihotz beroekin eman genion hasiera txangoari.

Heldu zein umeez osatutako lau talde egin genituen, eta herriko leku desberdinetara abiatu ginen:

Beiti kalean Jone eta Maider gazteak zain geneuzkan, soka bat gerritik helduta bueltak emateko asmoarekin. Saiatu eta saiatu, eta... lortu genuen!

Gero "Kantilape" edo "Yellowstone" izeneko parkera abiatu ginen. Han, Irune irakaslea geneukan zain, zaku karrera egin eta "nolako pertsonak nahi ditugu?" galderari erantzuna bilatzeko asmoarekin. Erantzunen artean denetarik egon zen: batek, "alaiak"; besteak, "txorropitoak"; eta beste batek, "gaiztoak" ere nahi ditu herrian (dirudienez txin-

txoak diren pertsoenez osatutako herria daukagu).

Ainara gazte teknikaria ere zain geneukan Arbel-Aitz elkarteak kanpoaldean "nolako herria nahi dugu?" galderaren erantzuna aurkitzeko. Oraingo honetan, gida turistikoaren tokian jarri, eta atzeritiko datorren turista talde bati Beheko kalea inguruko zer erakutsi, eta "zer betu beharko genukeen, eta zer ez?", galdetzea tokatu zitzaigun.

Honakoa bukatu, eta eskola ondoko frontoira abiatu ginen. Han, Kris irakaslea zegoen "nolako haurrak nahi ditugu?" galderaren erantzunak jasotzeko prest. Ondoren, haurrak arkitekto lanean jarri genituen; margoak hartu, eta "zer eta nola berrituko zenuke eskolako ingurunea?" galderari papertxo batean erantzuna ematea tokatu zitzaien.

Gunetik gunera gindoazela, dinamizatzaileez lagundurik, elkarriketak egin, eztabaida galderak bota, eta zer egingo genukeen planteatu zen. Ekarpenean anitz bildu ziren; besteak beste, dendei, helduen aisialdirako ekimenei, helduen aisigune/elkarbizitzari, atez atekoari, Udalarri (zerbitzuak), Udaleko azpiegitu-



Txangoaren zehar jasotako proposamenak

rei (ludoteka/liburutegia, kanpo-azpiegiturak, gaztelekua), guraso-haurren elkarbizitzari, osasun etxeari, mugikortasunari, eskolei, eskolako bideari, eskolako jantokiari, parte-hartzeari eta Itsasondori buruz.

Bukatzerakoan denok plazan elkartu ginen familia argazkia ateratzeko. Ondoren, Bizi Nahi elkartera abiatu ginen, han jubilatuek salda eta pintxo beroak prestatu baitzituzten.

Mila esker parte hartu zenuen guztiok!

Ah! Kamisetak egun horretan lortzerik izan ez zenuenok, Lurdesen dendan eta Kaxintanen eros ditzakezue. ■




Urtarrilaren 24an egindako txangoaren une bat.

# Karrape gaztelekua

tsasondoko Gaztelekuko nerabeak buru-belarri ari dira beraien egitasmoak aurrera eramaten. Hona hemen, hiru hilabete hauetan egin ditugun ekimen desberdinak.

1. Donostiara irteera egin genuen arratsalde pasa.
2. Txokolate eta txurroak jan genituen, arratsalde hotz batean.
3. Torradak egiten erakutsi zizkiguten jubilatuen elkarteok.
4. Torrada lehiaketan parte hartu genuen, epaimahaikide eta lehiakide bezala. Irati eta Naroak irabazi zuten saria; jubilatuen elkarteok ondo erakutsi zien nonbait.
5. Gaztelekuko murala margotzen ari gara.  
Dotore gelditzen ari da.
6. Cho Oyu hitzaldira joan ginen. Asko gustatu zitzaigun.
7. Festen inguruan hausnarketa egin genuen eta gure proposamenak Herri Bizitzako lan taldera eraman genituen.
8. Aldizkarirako galdera pentsatu eta herrian zehar galdetzen ibili ginen.
9. Udaberriko plangintza egin dugu, baita ekainera arteko ekintza plana ere.
10. Horrez gain, Gaztelekuan egoten garenean, mahai jolasetan, wii-an, eskulanetan ibiltzen gara.



## ASMOAK

ASTE SANTUETAKO PLANA ere badugu eta honako ekintza hauek egingo dira:

### MARTXOAK 30, astelehena, MASTERCHEF LEHIAKETA:


Aldez aurretik izena eman duten 5 urte-tik gorako edozeinek parte hartu dezake lehiaketa honetan. 5 urte azpiko haurrek ere, heldu batez lagundurik bada-toz, parte hartu dezakete. Partaideek osagarri zehatz batzuk dituzten pintxo goxoak prestatu beharko dituzte. Herriko plazan izango da zita, 17:00ak alde horretan.

### MARTXOAK 31 (asteartea),

SUKALDE TAILERRA: Iker Mendizabalekin Sukalde tailerra egingo dugu Arbelaitz elkartearen. (11-17 urte arteko nerabeentzat)

### APIRILAK 10 (ostirala):

Ohitura legez, bazkaria izango dugu Gaztelekuan, eta gero, Olaberriko karretara joango gara. ■





# 3+2 hezkuntza erreforma



**A**zken hilabeteetan gure ahoetan dabilen gaia da “3+2” dekretua. Honakoa, PPren Gobernuak eta Jose Ignazio Wert hezkuntza ministroak ezarri nahi duten erreforma berria da. Dekretu honek, karrerak deuseztatzea, gradu tituluei balioa kentzea, gehiengoarentzat ordainezinak diren kostuei aurre egiten behar izatea eta irakasleen kaleratzea ekarriko du, eta hurrengo ikasturtearen hasieratik aplikatu nahi dute; hau da, 2015eko irailetik aurrera.

Honakoa martxan jarritz gero, bakarrik dirudunek (pribilegiatu gutxi batzuk) izango dute goi mailako formakuntza egiteko aukera; eta beraz, lanpostu onenak beraiek lortuko dituzte. Bitartean, gainontzekoak, hau da, herri langileak, gehiengoak, langabezi eta prekarietate egoera pairatu beharko dugu, goi mailako ikasketak izatea ezinezkoa izango zaigulako.

Duela urte batzuk unibertsitateetan tasak %66ra iritsi ziren, beken kopurua nabarmenki murriztu zen, eta ikasle kopuru handi batek unibertsitatea utzi behar izan zuen ekonomikoki egoera honi aurre egiteko errekurtsio faltagatik. “3+2” izeneko dekretuarekin unibertsitate publikoak suntsitzeko helburuak indarrean jarraitzen du, eta dekretu honek, ondorio lazgarriak ekarriko dizkigu.

Orain arte, graduko ikasketak lau urtekoak izan dira, eta aurrerantzean, hiru urtera pasatu nahi dituzte. Masterrak berriz, urte batetik bi urtera aldatuko dituzte. Espezializazio egoki bat eduki ahal izateko, masterra egitea beharrezkoa izango da, eta honek, izugarritzko gastu ekonomikoa suposatuko du. Urte bateko masterraren prezioa 4.000 eta 7.000 euro bitartekoa bada, bi urtekoa bikoitza izango da; hau da, 8.000 eta 14.000 euro artekoa. Graduko ikasketak hiru urtera pasatu nahi dituztenez, milaka irakasle soberan geratuko dira; hortaz, hainbat eta hainbat kalera bota beharko dituzte.

Kaltetuak ez dira izango datorren ikasturteetik aurrera hasten direnak bakarrik, orain ikasten ari garenei ere eragingo digu. Gainera, graduatuta eta lizentziatuta daudenei ere eragingo die, izan ere, lizentziaturek eta gradu tituluek lan merkatuan balio gutxiago izango baitute; aurrerantzean, “espezializazio” master bat eskatuko dute.

“3+2” dekretua onartuz gero, gehiengoarentzat unibertsitateko ateak erabat itxiko dira; izugarritzko atzerapausoa izango litzateke, eta duela hainbat hamarkadetako egoerara itzuliko ginateke, ikasketak egiteko aukera sektore aberatsenei bakarrik eskainiz.

Egoera hau ikusita, hezkuntza eredu duina izatea eta hori bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea exijitzen dugu. Herritik eta herriarentzat izango den hezkuntza baten aldeko apustua egiten dugu; hau da, nazio bakoitzak bere beharrian sozialei erantzungo diena eta ez kapitalari eta merkatuei, dohainekoa izango dena eta herri langilea unibertsitatara joatea bermatuko duena. Azken batean, zapalkuntza oro gainditzea ahalbidetuko duen hezkuntza. ■

# Famili bitartekaritzarako zerbitzua

## Zer da?

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren zerbitzu bat da, Familia Bitartekaritzarako legea eta Gizarte Zerbitzuei buruzko legea garatzeko sortua. Doakoa da eta edonork erabili dezake bere borondatez. Familia eta bikoteetan sortzen diren arazoak konpontzen laguntzen du. Gizarte psikologia eta lege gaietan adituak diren famili bitartekarien diziplina anitzeko talde batek osatzen du.



## Zer eskaintzen du?

Familiako edo bikoteko arazoak azaldu eta ulertzeko gune neutral bat.

- Komunikazioa errazteko eta familiako arazoak konpontzen laguntzeko leku bat. Haustura-egoeran dauden bikoteei erabakiak hartzen laguntzea, egoera guztietan denen artean adostasuna bilatuz.
- Emozio-kostua eta denbora gutxitzen dituen prozesu bat, auzitara jo beharrik izan gabe. Informazio juridikoa eta aholkularitza psikologiko eta soziala, bitartekaritzaren barruan.

## Nori zuzendua dago?

Bikoteei; beraiek dituzten arazoak bizikidetzako hausturak eragindakoak bada, behintzat. Familiei, betiere, elkarbizitzarekin lotutako gai batzuk izan bada desadostasunaren iturri; besteak beste, mendeko pertsonen zaintza, be-launaldien arteko gorabeherak eta oinordetza edota famili negoziok.

## Harremanetan jartzeko

Zerbitzu hau zure arazoak konpontzeko baliagarria izango dela uste baduzu edota zalantzaren bat argitu nahi baduzu, honako helbidean aurkituko duzu laguntza-zerbitzua:

Larramendi, 1 (sarrera Prim kaletik)  
20006 Donostia. 943-576208  
smtgipuzkoa@bateratu.org

Itsasondoko Gizarte Zerbitzuak  
Telefona: 943 881 170 ■

# Nondik uste duzu datorkigula itsasondotarro "ijitto" izena edo motea? Ondo iruditzen al zaizu?



**Irune Armendariz**

Agian garai bateko herritarrek ijittu samarrak izango ziren eta horregatik jarriko zien izen hori. Egia esan, niri ongi iruditzen zait.



**Ainhoa Barandiaran**

Ba ez dakit... agian, itsasondokoak ijittuak bezela biziko zien garai batean, karroetan ibiliz eta gauzak salduz.



**Aitor Garmendia**

Itsasondon, Etxeberria abizeneko jende asko dago. Esaten dute, abizen hori zutenak ijittuak zirela, eta horregatik izango da. Gustukoa duk nik ere motea.

**Julen Zabala**

Ba egia esan, ez naiz gogoratzen, baina asko gustatzen zait Itsasondokoak "ijittuk" izatea; gurea den zerbait da.

**Mattin Barandiaran**

Banekien istorioa etxeko norbaitek kontatuta, baina orain ez naiz gogoratzen. Oso ondo iruditzen zait motea, Itsasondoko identitatea da eta hori ezin da aldatu. Horrela izan behar du; gu ijittuak gara eta harro gaude.



# Jubilatu elkarte

**Herriko jubilatuek elkarteak antolatzen dituzten txokoak antolatzen dituzten urtean zehar.**

## Bingoa jubilatuek elkarteak

Urtero erronka ezberdinak markatzen ditugu; aurtengoa, bingoa martxan jartzea izan da. Hortaz, norbaitek bingoan jokatu nahi baldin badu, badaki, hileko azken ostegunetan bertara gerturatzea besterik ez du. Urtarrilean eta otsailean egin ditugun saioetan, batez beste, 15-20 pertsona bildu gara, eta arratsalde atsegina igarotzeko aitzakia izan dugu. Bingoan jokatu ondoren, kafesne beroa pastekin hartu eta tertulian aritzeko tarteak ere izaten dugu.

Hurrengo saioak martxoaren 26an, apirilaren 30ean eta maiatzaren 28an izango dira. Beraz, adi pantailetakoa deialdiei, eta animatu ondo pasatzera!

## Hurrengo hilabeteetarako prest ditugun txangoak eta irteerak

Gure urteko programan, urtetik urtera martxan jartzen ditugun erronkez gain, baditugu beti antolatzen ditugun ekitaldiak ere; Euskal Herriko zenbait txokotara antolatzen ditugun irteerak, eta iraileko azken igandean udarari agurra emateko ospatzen dugun herriko Jubilatuek Eguna, besteak beste. Herrian, urteko data seinalatu batzuk ere ospatzen ditugu: ekainean, Herri Eguna; abuztuan, Andra Mari jaiak; eta irailean, herriko jaiak.

Aurten, besteak beste, honako ekintza hauek antolatzeko asmoa ere badaukagu:

- Ekainean, egun bateko irteera Santander aldera; bisita gidatu bat egin, eta ea horrela Santandeko bazterrek hobeto ezagutzen ditugun.
- Ohiturari jarraituz, Tolosara trennez joan eta Alegian bazkaltzen geratzen garen urteroko txangoa ere egitekoak gara. Data oraindik ez dugu zehaztuta, baina lasai, aurrez jakinaraziko dizuegu.
- Eta amaitzeko, Errioxa aldeko upategi batera joateko txangoa prestatzen ari gara.

Ikusten duzuen bezala, aurtengo urterako ere agenda betetzen ari gara. Orokorrean, jardueretan jendeak parte hartzen badu ere, jubilatuek gehiagok parte hartzea gustatuko litzaiguke. Guk hemendik aurrera ere lanean jarraituko dugu, denon artean denon gustukoa izango den programa aurrera ateratzeko. Hala ere, zuen bultzadaxoa behar dugu; ideiak partekatzea, eztabaidatzea eta antolaketetan laguntzea ezinbestekoa izango da buruan daukagun hori aurrera ateratzeko. Herrian dugun txokoari bultzadaxoa eta bizia emateko beharra ikusten dugu; beraz, zure ideiak partekatzeko edota laguntzeko prest bazaude, lasai idatzi [bizinahi@itsasondo.eus](mailto:bizinahi@itsasondo.eus) helbidera. Gainera, nahi baduzu, zure proposamena gure egoitzaren kanpoko aldean dagoen postontzian ere utz dezakezu; eskuzabal hartuko dugu!

Bizi Nahi jubilatuek elkarteak batzordea. ■



# Olentzero, Mari Domingi eta Ijittu eguna

**H**otz galanta egiten zuen Itsason-don abenduaren 24an, baina, hala ere, hankak eta eztarriak ondo berotu genituen, paseoa, kanta eta kanta ibilita. Gainera, Arbelaitzen eskutik hamaiketako ederra egin genuen. Bukatzeko, enparantzan azkeneko kantua bota, eta zein azalduko eta... Mari Domingi eta Olentzero!

Heldu eta ume, ume eta heldu, goiz ederra pasatu genuen guztiok elkarrekin. Hala ere, esker bereziak, bai etxeetatik, baita kaletik bertatik ere kasu egin zeniguten guztiei. Eta kasu egiterik izan ez zenutenei ere mila esker, datorren urtean gure artean izango zarete eta.

Datorren urtean berriro ikusiko dugu elkar, baina ez ahaztu; ONDO BIZI! ■

**J**adanik pasa berria dugu aurtengo Ijittu Eguna. Otsailaren 7an ospatu genuen. Eguraldiak lagundu gintuen, eta horri esker, Itsasondoko kaleak zartagi hotsekin astindu genituen.

Kaleak astintzen hasi aurretik, 2. urtez "Ijittu Beso Erraldoia" egin genuen danon artean "Bizi Nahi", Jubilatuen elkarteak; aurten ere, gure "Master Chef"-ek (Gorka, Javi eta Iñaki) dena prest izan dute besteak iristerako. Ummm! Ze goxoa zegoen!

Eguna afari merienda eginez bukatu genuen. Enee! Dena mahaiairen bueltan egiten dugu, e?

ESKERRIK ASKO LH1 ETA LH2ko HAURREN GURASOEI, EGUNA ANTO-LATZEAGATIK!

HURRENGO URTEAN... GEHIAGO!


AIOO ■





Axintxio Iturrioz

## Bizitza bat kamioia eta bizikleta bidelagun



1932. urtean Itsasondoko  
Intxaurrondo etxean jaioa,  
10 senideko familia bateko kide.  
Aita gazte hilik, hamairu urterekin  
Ordiziako Muebles Herregi  
haroztegiari hasi zen lanean baina  
laster hartu zuen bere kaxa hasteko  
asmoa eta ibilbidea eta ordudandik  
ez zitzaizkion asmo eta proiekturik  
falta izan Axintxori. Labur esan  
beharko bagenu, bere bizitza bi  
pasioek gidatu dute, kamioiak eta  
txofergintzak eta bizikletarako  
afizioak. Kilometro luzez eginiko  
bizitza izan duenik ezin uka.



## Bueno Axintxio, zuk esango diazu, zure izen abizenak.

Nere izen abizenak diittuk Axintxio Iturrioz Arizmendi.

### Itsasondo jaioa o...

Bai, Itsasonden jaioa el año 1932, 4 de mayo. Bizi izan nitxok oainantzen Beko Kalen, casa Intxaurren.

### Baño Casa Intxaurren len beste etxe bat zeon sobra ere ez?

Intxaurren zian gure etxea. Hoi Sarasolana huan eta len baserri bat bere batzakin huan. Hoan soziedade daun hartan bizi ginuntzean. Ekonomatoa daun hura dek, hasi lurretik eta teilatuano berrie, eta han genduan batzea. Soziedadaren gora in zittuen 2 piso gehio eta hordun igualtsu jarri zien, besteen altura berdintsu jarri zittuan. Gure familian hor izan gintzunten denok.

### Zenbat senide?

Gu hamar.

### Hamar senide? Redios... bromagutxi.

Bai hamar.

### Hamar senide eta zu zenbagarrena? Gaztena, zaharrena o...

Nik atzetik zeuzkeat bi, zazpi aurretik. Hildako bat ere bauan, ni ez neok akordatzan baio.

### Gorra izango zan hamar senideentzat bizia ateatzea?

Bai, atte zana harrobin lanen, Itsasondoko harrobin. Geo gaxotasune harrapau zian, Silicosis da..

### Dexente hil zien sobrare gaixotasun horrekin ez?

Gure atte harrekin hil huan... ta geo gu gaztek ba bueno batzuk morroi jun itttuan, beste batzuk e... nik suertea euki nian, ni ez nittuan jun morroi. Ni geo gaztek hasi nittuan, hamairu urtekin haroztegin, Villafrancan. Zinen azpin, aurreneko plantan hasi nindun. Muebles Herregi, han ibili ninduan, geo Lekuonana ere jun ninduan, len surtidorea zeon hartan, kalle Urdanetan han beran. Eta geo handik nekaxa hasi ninduan.

### Zenbat urtekin?

Hamalautik hamabosta, tarte hortan. Tomasenekoa Domingo lengusukin, Domingo lengusuk esan ziteakean; zenbat irabazten det? Nik eunen cuatro cincuenta, esan nitxoan.

### 4 pezeta, 50 zentimo ezta?

Bai. Ta esan ziteakean; Diru hoi atzaten diat nik, hik aste guztin irabazten dekena nik eun baten irabazten diat. Ta... tentazioa bakik...

### Ta bea zertan ibiltzen zan ba?

Txatarra ta trapuk biltzen. Mas que nada trapue biltzen, garai hartan trapue ondo patzen huan.

### Ta zertako biltzen zan ba trapue?

Trapue geo saldu itten oan, almazenistai.

### Baño ze iteko, trapu zaharrak arropa zaharrak itteko izango zan ez?

Esprikaukoiat geo... geo hasi ginttuan txatarra biltzen biok, ta trapu biltzen. Lehenengo salidea Baliarrain, Altxaga eta Orendaña. Ta hiru eun pasa, bueltakoa ibili baserritan eta ez genduan batere bildu.

### Hordun harek esandakoa...

Bai, nahikoa desanimatzen hasi ninduan. Halako ibilerak ein egun guztin, gettu gabe ta... eun guztie pasatu ta geo etxe-koandrek e esaten gittuan, baño zuek zezaten gaztekin ofizio bat ikasi ho zerbait eta... hola ibili be ta, desanimau ere pisakat e bai. Ta geo handik laugarren o bostgarren eun hoitako baten zakutakara haundi bat trapue bildu genduan. Trapu ona, ta harekin atea genduan aste guztin biontzako. Hala hasi gintuan eta ibilire bai bastante denboran, batea eta bestea eta... baño ordun e izateoan zerbait.

### Ordun e ibiliko ziñeten kamioen batekin o...

Ez ez, hacer de portador. Bizkarren zakue hartuta, baserritik kamiña atea eta geo handik ekartzen ginuztean. Ez nitxoan denbora askon ibili. Geo hasi nittuan nere kontua. Hua, baten batea juten huan, ta geo bestea juten huan, ni baño espabilatugoa ta... Hura ni baño aurreago ibiltzen huan eta nik ne artean "ni bakarrik e defenduttuko neok, ia ikasitzen e ai neok piska bat eta" ikasi nian in nian pixkat bai, kobrea hobea zala burnie baño, metalak e bai, brontzek, latoiak ta hoik danak ikasi nizkian horduako. Ta ala bakarrik hasi nittuan. Baserrin genduken zaldie, Zubiñen. Zubiñen bizi gintxoan hordun. Intxaurrendotik Zubiñea pasa giñen. Han baserrie eosi zitean attek eta, zazpi mila duron, 35.000 pesetas, garai hartan. Zaldie zeon han eta zaldikin hasi nittuan Santa Maña juten, Baliarraña juten, Altxaga juten... Zaldikin, hari jartzen dion jana zaku baten, belarra eamaten nioan ta hantxe...

### Eta orduan ere txatarra biltzen?

Txatarra, kobrea eta ahal zana. Dana, baliokoa zana, dana. Ekartzen nian honea eta hemen neukean almazen bezela, Joselontxo, "Joston" o esaten gi-

nioan, Herrementeikoa, hue harten bizi oan eta harek lokala zeukean beran ta esan nitxoan haber lokal hura alkilakuko zin, txatarra biltzen nola eta hura pilla in harte, geo saltzea emango nula ta, baietz. Hala, hileko horrenbesteko batekin hasi ninduan. Zaldikin hasi ninduan eta geo zaldi-karroa eosi nian, eta karrokin leku gehiota juten ninduan. Baserritak, leku txarra bazeon zaldi karroaño jexi eta danak ekartzen nizkian etxea, ta pillea iten nian garaje hartan. Hortik Beasainea saltzen nian, bazeoan txatarrero bat ondo eamaten ninduala beakin, Barcenilla, ta harek esaten zian "tu cuando tengas un monton grande me avisas, yo te llevo y si quieres te adelanto el dinero" esaten ziteaken. Erdaldune huan, bea Burgoskoa huan ta "te adelanto el dinero" esaten ziteaken. Ez nian beñe aurreatu ze ezitzaian gustatzen ahal nula.

Ta trapu asuntua berriz, gerra ondoen bela huan hori, lanazko trapue, galtzerdi zaharrak, jertxea lanazkoa... eta hoik ikearri balio zien, gerra ondoenen.

### Baño zertako balio zuen trapu hoik? kuriosidadea dauket jakiteko zertako balio zuen...

Esango diat ikearri balioa zien bai. Eta hilea, ardin ilea, koltxo zaharrak eta hoik urrea balio zien. Artzaieta ez ginuztean jute, haik zuzenen saltzen zitean al por mayor, kamioien. Hoik gerrako zeeze itteko eamaten zituztean. Artile horrekin erropan bat espeziala o zeeze bahoan hor... Lana zaharra 6 duro patzen zigutean guri, galtzerdik, jertxek eta lanazko trapuk. **Zakurara o...**

Ez ez, kiloko. Esan diat ba urrea zala!

Ordun Zubiñen neoa ni ta hiru emakume eamaten nizkian nik auntza, pillea in eta han itten genduan lejiakin garbittu kalderatan eta errekan, sekatzan jarri eta klasifikatu. Erropa hoi pusketak eitten ginuztean 40x50 o 50x50. Hordua-kore ikasi nian hemen beste txatarrero batek nola itten zittun fardok prensa batekin, ta geo nei taller baten in zitean prensa eta paketek egitten genizkian. Hortako nik ez nian behar hainbe trapu billatzen eta Tolosa juten nitxoan, han ijitok 4.000 – 5.000 kilo igual almazenauta eukitzen zituztean, ta nei saldu itten ziteaken. Gerogo furgoneta eosi nian eta furgonetakin ekartzen nizkian trapu hoik, garbittu, enpaketau, kolorek

kolorekokin eta txurik txurikin klasifikau...eta Pasaia saltzen nizkian barakuako, linpiezako, motorretan ibiltzen zien mekanikon eskutako ta... bai... hor dirue atatzten hoan. Hoan izena aztuta diat baño Ziriza o holako zeoze oan, Pasaian barkuntzako rekanbiok eukitzen zitean, kotoia, sokak, sarek, barkuntzako erramienta klase guztitakoko baño kotoia baño trapue nahiago zitean. Hordun nik auntzaino eamateko ez neukean ezer eta hemen, transportes Sukiakin eta Zepelinen paketek indakok jarri pronto eta Pasaia eamaten zien. Paketen bat irikitzen zien ikusteko nola zeon eta bale, ondo baldin bazeon aurrea, patzen zien eta etxea. Geo hordun eosi nian automobile.

### Ta Pasaia trasportitakin jungo ziñen ordun e?

Bai, hauntza trasportistakin juden nittuan, deskargatu ta hango diruk kobratu eta etxea etortzen ginuztean.

### Ordun gaztea izango ziñen oandio?

Oixe... hamasei urtekin auomobile eosi nian, Iruñan. Furgoneta bat eosi nian, marka BERLIETA. Hoi izatez frantxesa uan, bolantea eskubin zona. Veinticinco cincuentaídos 2552 HU, Huesca... eta eosi nian Calle San Nicolasen, Pamploñan. Han hartu, ekarri nian eta neonek iten nizkian trikimailu hoik danak, trapuk bildu eta Pasaia eaman. Automobil hoi eosi baño lentxeo, tarten, Tolosan Eskerñanen mobileta ere eosi nian, berri berrie, cuatro mil quinientas pesetas pau nian. Harten berrik ituan mobilet hoik, ez ittuau asko ikusten, bakarñan bat igual... baño harrekin e probau behar nola. Arrebak eta Pasaian eoten zien eta arraien gora beran asko zekien, koñadok ere bai eta nik han bakailaue eosten nian. Ordun Terranobatik Pasaiaiko Pisbea, zentrala, bakailau haundie eta ona etortze huen. Nere anai zana ere han ibili huan, terranobako merkanten sei urte o in zizkian. Asike bakailaueñ marxta piskat ikasi nun garaiñ Pasaia juden nittuan mobiletakin, 40 kiloko paketea mobileten parrillan jarri, kaja baten ondo lotuta eta Pasaian sartu korrean eta Etxarriaino juden nittuan, Etxarriñ jetxi eta tunelen beti gora Estella aldea, Abarzuza eta herri kokzor hoik denak pasatzten nizkian bakailua saltzen.

### Mobileten?

Bai bai, mobiletekin etxex etxe, eta saldu itten nizkian. Asten biage bat iten nian eta ia beti danak saltzen nizkian. Len

esan diaten furgoneta, hoik pasa eta geo eosi nian. Eta gerogo kamioneta. Kamioneta eosi nianen, anai zana Fernando, laun nola Donostin eosten ginuztean sardinak eta antxoak eta saltzea juden ginuztean Naparro aldea. Sardina kajea, 18 kiloko kajea, patzen genduan 4 pezeta eta erdi, kajea osoa eta 20-28 kaja kargatzen ginuztean, direkto barkutik furgoneta. Han subasta iten zien eta handik ata ahala furgoneta. Tolosan, txaramatik gora hasten giñen eta herriz herri saltzea juden gintzen, eta sobratzen baldin bazitaiun Gorritia juden ginuztean. Gorritin bazian anai zanak amisteadea eta han sobrautako sardiña tripak atera ta eska-betxen eta gatzetan barrikan zabal zabal inda, txukun txukun jartzen genizkian eta aparie eta lo ittea etziun kobratzen.

### Sardinan truke?

Klaro, sobratzen zana, arrai ona zan eta hamar, hamabost eunen bein juden ginuztean eta barrika kokorra betetzen genduan... ta alaxe ibili ginuztean sardina saltzen. Sardiña saltzez utzi eta beti izan diatenez automobiletako afizioa, Donostitin erosi nian kamioi bat ibiltzen zana Goierri aldea sizterñan gasolina ekartzen, CAMPSAkoa, erretiau in behar zola eta erosi nitxoan, zisterna utzi eta kamioia bakarrik hartu nioan. Ala kamioia eosi, karrozerie in eta hala ibili nitxoan bastante denboran. Hua bukatu nun garaiñ beste bat eosi nian Madriden, Amerikanok gerran ibilitako kamioi zarrak DIAMON T, calle Modesto los Fuentes numero ochenta y seis. Eta eaman nizkian ciento noventa mil pesetas, sartu kolkon, Beasainen hartu expressa, Madrilela jun, eosi kamioia, madrilen eun bat pasa eta kamioien etorri nitxoan etxea. Hemen txukundu nian eta harekin urtetan ibili neok.

### Eta ordun ze lanetan ibiltzen zinen? Txatarra alde batean utzita o?

la transporten hasi nitxoan ta aurreneko biagea in nun Bartzelona.

### Garai hartan karnetak eta nola atetzen zien? Examinek eta itten al zien?

Oan bezelaxe itten ittuau, hemezortzi urtekin segundakoa atea nian, eta geo hogeita batekin atea nian primerakoa. Aramako Pako zana, Sarasolakin mekaniko ibiltzen zana, Aramako apaizen anaie, hura ta biok juden giñuztean Donostia, Arakamana karneta ateatzea. Hilabeten jun ginuztean eta karneta atea genduan,

bate problemaibe, hordun etzuan intermitenteik eta hordun eskuere manejatzen huan eta halaxen... Kamio berrik eosteko diruik ez eta zaharrak erosi, berrittua eta bere hortan ibiltzen gintuan. Geroa berrik e euki nizkian baino aurrenetik zaharrak. Eta hola jubilau arte. 55 urte in dizkiat nik kamioia-kin. Asko ez dittut eongo horrenbeste urten ibilitakok bere kontua automobil batekin... eta suerte haundie euki diat, ez diat aberi handik euki ezta azidenteik ereez. Behin bakarrik euki diat aberie Ordizin, Ikaztegiñtan kargau nizkian egurrek baserri baten eta Villafrankan eaman behar zien estazio ondoko serrerri batea, Serrerria Irastotza. Ikaztegiñtan kargau nunen bertako attonak, asteazkena huan eta "eamango al diazu nei ordizia" esan sitxean, "bai benga igo" esan nitxoan. Ordun bidea hemendik huan, San Juandik barrenra Olanotik gora zuzenen plazaino. Han jetxi huan automobiletik eta botika zarreko hartan ezkerrea hartu behar nien. Kurba itxia eman behar nien eta han nijola frenue puskau zitzaian. Atzeko erruedako bonbiñe, pistoia eta bi gomaxo izatettuk, eta goma hoi puskatu eta likidoa ata huan, eta frenu gabe. Denbora eman zitean salto iteko kamioietik, botika zaharreko pareta paratxokekin bota zian eta pareta txintxili-geau zian. Fotografie etxen zeukeat nunbait.

### Asteazkena izanda gañea jendea ingurauko zan?

Bai, Jose Castillo,jatetxekoa aurreneko-takoa etorri zan. Katillu saldea hartu eta etorri zitzaitean. Etorri oan ta "hartzazu salda hau" esan zitean "honek piztuko zattu". Hartu nian saldea eta .

### Kolore zurikin ateako zinen handio ta? Jejeje

Bai. Han eon ginen puska baten ta geo etorri uan kamiona, kargea haruntza kanbiau genduan. Kargea kanbiau zianen nere kamionai eantxi kablea eta atzeaka ata zien. Nere kamioiak etziñan ezer, frenue puskauta bakarrik. Ala kamioia poliki poliki bera jetxi, mekanikoit otxein eta Beasainen porteriko Arrese garajea eaman, han arreglatu zuen y se acabo, no ha pasau nada. Launek enterau ittuau, Kaxinto, Agustin, Imanol kuadrilakok eta herria etorritakon "sustoa pasatzeko bakik ze in behar deun, Donostia jun behar diau atsalden". Ta hala jun ginuztean, lutch librea ikustea, Urdiaingoa edo ondoko herriko Vitorio Otxoa. Hala ospau genduan sustoa, ta geo ala seittu

behar, sustoa pasa ta geo. Hoixen izan huan nere perkantze guztie.

Ordun frenok settun aberiatzen ittuan. Zeatik ez zeon hoan bezelako rekanbiok eta holakoik. Ordun goma puskatzen huan, hura jartzen huan ta aurea. Harek barrun eukitzen zian pistoi bat, aurea ta atzea ibiltzen huana eta hua pikatu igual iten huan. Hordun asteik ez genduan pasatzen garajea jun gabe. Astero juten ginuztean garajea. Han izaten gendun tertulie, beti garajen, ni bezela bestek, beti kamioi zarrakin.

Harten Pegaso berrie ere etzeoan, Aurrenekotako Pegaso Beasaina etorri huan, Garin auzora. Egurrezko kabinakin.

### **Lehen aipatu dezu merkantzikin hasita zeundela orduako baño hemen minan ibilita al zare?**

Uuuuuu... Minan pasa nizekian nik hoguei bat urte edo inguru hoi.

#### **Pizarra batetik bestea moitzen o?**

Nik ordun Imanol Sarasolakin hartueman handie neukean, beak txatarra saltzen bait zitean, eta esan ziteakean, "zuk Axintxo, kamioiak in serbizioa ingo al ziniake harrie jeisten minatik honea bera?" Ordun GMS-a, Tolosako Benta Haunditik, Joan Joxe etortzen huan, eta ze pasatzen huan, minan batzutan eoten huan hamar biaje, eta bestetan bi biaje ta galesti atatzten huan. Hurruna biaje bat igual eta tailerren harrie falta, materiala falta eta kamioia behar. Ordun Imanolek esan ziteaken "proba ingo al deu". Jungiñutxean gora, kargau genduan harrie eta jetxi nitxoan bera ta "valido, benga segido orain hemendik aurrea".

#### **Prueba superada hordun.**

Bai, eunero harrie jetxi, preziok eta jarri ginuztean honbeste biajeko ta... Urte askon, hoguei urten edo hola.

#### **Ordun hemen ibili zinenen bestelako lanik ez zendun ingo ala?**

Bueno, ordun iten nian Sarasolana, basoko egurre e bai. Jarri bi trabiesa, bi tronko luze eta sokakin bueltaka bueltaka kamioia kargatzen igual pasatzen genduan goiz guztie o atsalde guztie. Lau laun, bost ta hola. Ez diru eta ez lan. Ibili, nunbait ibili behar ta halaxe ibiltzen ginuztean. Ta gu bezela bestek. Han etzeoan beste ixorik.

Geo poliki poliki jun ginuztean ba superatzen, urtek e bai ta esan diaten bezela geo Madrideko kamioi hurare eosi nian, ta harekin hasi nitxoan Bartzelona ta... hainbeste ixtori zeuzkeat harekin.



### **Minako fasea pasa eta gero hasi zinen bestelako bueltak itten ala? Kanpoa juten ta...**

Bai, hoi dek. Nik hemen harrie jeisten urte asko in nizekian. Ez harrie bakarrik, komeni zienen billarrak, pizarrak, interuptorentzako kuadroak, harritzok izaten ittuan ta hoik Donostia eaman ta... reparton ibiltzen nitxoan. Igual izaten nizekian hamabost lekuta o hoguei lekuta... ta hoi lan ona izaten zian oso, horrek dirue ematen zian.

#### **Hor arrisku gehio igual?**

Bai baño dena zeon in beharra, esan ziteaken Imanolek, "habia que estar a los dueros y a los maduros" ta denak in behar izaten nizekian. Geo Valladolidizea ere joaten giñenan pizarakin, teiltatuako eta eskribitzeko pizarakin, baita kuadrantzako baldosakin ere bai. Pasaia asko ematen nian harrie, Afrika eamateko, puertoako. Cincuenta por cincuenta. Baldosa modun, lorie 3 zentimetrokoa. Ta zertako izango huan, ba esaten zien kafea tostatzeko euzkitan. Haren gañen jarri kafea eta tostau itten omen zien kafea. Ta nik pillak eamaten nizekian puerto, pillak, eh? Uhan materiala oso aprobetxablea, zeatik puska txikik ittuan ta. Harekin reparto handie itten nian. Geo herritan e jartzen ginuztean, espaloietan, baldosatako ta... Ni sarasolakin asko ibili nitxoan. Ondarra re ekartzen nian. Harrik ebaitzeko makinak, telarrak, ondarrakin harrik ebaitzen zizkien ta ondarra ekartzen nian Hernanitik hortako, baita minan harrie eroitzeko ere bai. Alambrekin harrie ebaitzen uan minan eta hortako re ondarrakin ekartzen huan.

Astigarragatik eta Hernanitik, bi leku hoi-tatik ekarzen nian ondarra. Sarasolantzako urte askon ekarri nian, asten lau bat biaje o ekartzen nizekian ta geo Arriangoa re hasi huan martxan ta geo bitako ekartzen nian ondarra. Oso lan ona euki nian, urte askon gañea ta lana etengabe euki nian. Hortako kamioiak e kanbiau nizekian. Bat hona eosi nian, Pegaso Super Komet-a, oso ona, berrie, Madridea jun eta fabrikatik ekarri nian berrie. Harek ata ziteakean aurea, kiston ibilik iten nizekian harekin. Eguerdin bazkaltzeko re denboraik ez nian hartzen zeatik denakin konprometitzen nitxoan ta daneta allau behar. A toda metxa ibiltzen nitxoan harekin. Urte asko in nittuan harekin ta geo ekarri nizekian Escania ta... Holaxen jun dittuk berrogehita hamabost urte, nere gora beran, hoixe gustatzen ta...

Ixarreko harrina re bat esan behar diat: Esan ziteakean Imanolek "harri hoixe behar diat ba nik, erremeio be..." ta esan nioan "inposiblea da kamioan jeixtea, bizimodue jokatu behar deu?" "proba intzazu ba" beak. Da pentsu nian txoferran aldeko atea kentzea, salto itteko pre-pauta nean bazpare. Eskufrenue, Altsasua junda, palanka haundi batekin oso ondo jarrita neukean, eta aldapan goitik bera hasi nitxoan garaian eskufrenoi fuerte eman nitxoan eta motorrak gehitzon zonakin justu justu justu jetxi nitxoan. Laune nian, beti nekin ibiltzen zana, Martin Jainkoa, hura aurretik bialtzen nian, norbait bazetorrean, gurdin bat o eoezin gauza, gelditzeko. Hemen



Zelatzoko kurba hura txarra huan, lxa-  
rren goikoa eta Otamendikoa ere ikara-  
garri txarrak ittuan. Aldapa kristona, ta  
hoik pasa nizkianen Martini esan nitxoan  
“segi hoan bera, kamiñoa” ta korrika  
bera jetxi ta inor bazan denak geitzen ziz-  
kitean. Han pasatakon kamioia sartu ta  
mekaben dio, hura zian zerue! Geo tai-  
lerreren aurren baskula zeoan, baskulan  
gañen jarri ta 12 tonelada! Ta kamioian  
gañen ibiltzeko habilitadea 4 tonelada  
ta erdi ibiltzekoa. Esaten zian ba “habia  
que estar a los duros y a los maduros”,  
hantxe proba in genian. Harrezkeo ondo  
ikusie izan nitxok ni beti, txarrak eta  
onak denak itten nizkian eta. Ezetz beine  
ez, beti baietz esaten genitxoan. Ein e  
bai e? Eta netzako, batzuntzako txarra  
oana netzako ona hoan, nekin ondo ea-  
maten oan.

### **Argazki zaharren baten e ikusi za- tut nik... txirindularitzarako afizioa ere izan dezu zuk, hala?**

Bizikletako afizioa, ikeragarrie. Gure  
etxan bizikleta onak eoten hittuan. Gure  
atte zanak frantzitik ekarri zizkian bi bi-  
zikleta. Bat oan, Automoto, izena zian.  
Kiston errueda zabalakin, llantak kro-  
mauta, ez nikelauta, kromauta... farolak  
eta brillu bat. Ikusteko bizikletea uan.  
Eta geo beste bat uan Alchioc, frantzia.  
Mutiko txikie nitxoan eta bakik, haikin  
afizioa. 8-9 urtekin, taberna baztarretako  
bizikletak guetzako izaten ittuan, guk  
probatzen ginuztean, bestek basoerdie  
hartzea juten zien garaien guk aprobe-  
tsatzen ginuztean. Bizikletan ikasi nian  
nik, Tomaseneko Joakinekin, Elizondon  
bizi izandakoa, zaharrena, hil oan, eta  
harek Jaso oain daun zelai hoitan, Goian  
sorok ittuan haik ordun, eta esan zitea-  
kean “hi, nei garduerak bilatzen badiak,  
ekartzen badiak onutza bilduta, nik bizi-  
kletan eakutxiko diat.

### **Garduerak?**

Bai, konejuntzako jana. Ta nik ekarri zi-  
kiokean sorta bat eta esan ziteakean “io  
honea”, raaaaa bultza in ziteakean eta  
“hay te arreglas”. Aldapan goitik bera iten  
dik piskat, eta erdi pedalai emanez han  
jun nittuan, beoztegiko kruze hartan hartu  
nian buelta eta erdi pedalai emanez,  
atzea lengo tokiaño etorri nitzoan, Jaso  
pareaño. Handik aurrea, kamiñu bazta-  
rreko bizikletak gutzako izaten ittuan.

### **Tarberna ere zuek etxan zeukezuen ezta?**

Bai etxan ondón.

### **Baño hoi zuena zan, o gurasona o...**

Bai, gure etxan teberna huan eta Erre-  
mentein ere taberna huan. Zelatun e ta-  
berna huan.

### **Latine e taberna izango zan?**

Bai, etxe hau daun hontan e taberna  
huan. San Juanen, Aramendin e taberna  
huan han e. Latiñe, Konseju, kontxi eta  
Andres bizi ziena. Hoik denak ezautu zi-  
kiau. Ta beste gauza bat, kamiñoa oan,  
soziedadeko kamiño hoi uan kamiño jene-  
rala eta goiko kamiñoa hau berrie itten  
ezautu nian. Oamuñuko Joxe zanak, Lu-  
luaga, enkargatuk esaten zioan “moto hoi  
eaman zazu hauntzaño” ta gañen jartzen  
huan moto haundi baten ta arrankatu  
gabe Latiñeano etortzen huan, han baz-  
kaltzen zien, horrekin akordutzen neok.

Hurruna akordutzen neokena det,  
lbasko zubi berrie, año cincuenta pa-  
sauta hor ingurun in zian, Vitoriko kon-  
pañi batek, Construcciones Uriarte. Han  
ibiltzen huan kamiñero bat, kamio oso  
ona zeukean bat, Logroñokoa huan eta  
kamioi ona zianez hemen jauntxoa huan,  
hemen ez bait zeoan itsurazko kamioik  
eta. Esaten zien kamioikara porlana  
saldu iten zola harek. Emilio Rodriguez  
izena zian, nik ezauti nian, hola kaskago-  
rri bat. Nere anaie Inaxio ta attu ittuan  
kamiñu hoi itten, lbasko hoi itten. Hoik  
danak ezautu dizkiau, urte asko dittut!

### **Ta bizikletara bueltatuz... bueno hasi ziñen tabernako bizikletak proba- tzen eta hortik aurrea...**

Hortik aurrea, etxan zeona arreglau, txu-  
kundu eta harekin Gipuzkoa gehiena pa-  
sata eongo neok e! Brilloa atazen  
genioan oliokin eta trastekin eta txukun-  
duta jarri ta harekin ibiltzen ginuztean.  
Gerogo eosi nian bizikleta ona, karrera-  
koa. Jaietan Irunea juten ginuztean, jai  
atsaldetan. Goiz ta atsalde irikita eoten  
zian eta han eosten ginuztean trastek,  
bizikletatako rekanbiok; llantak, radiok,  
farolak, kubiartak... bizikletan juten gi-  
ñuztean eta haik bizkarren hartu eta  
etortzen ginuztean. Dirue gendukean be-  
zela gastatzen gendun eta geo saldure  
itten ginuztean batzuk... Montatzen e  
ikasi genian piskat, ondo? Bai... bueltak  
ematen zizkien erruedak eta! Hala etxan  
arreglatzen genizkian, ze Montoronea ju-  
teko ta, bai besteik etzanen juten giñuz-  
tean baño dirue asko behar zian eta  
etxan moldatzen ginuztean.

Handik aurrea geo, aurrenekotako sa-  
lida bat izan hoan Naparroa, gerra ondo-

enen, nik ordun hamahiru hamalau urte  
eikuko nizkian. San Juanen bizi huan  
Txulo, Juaniton anaie, Joxe, eta esan zi-  
teakean “ni papata ekartzea juten neok  
naparroa ta nahi badek etorri nekin hik  
e ekarrikoek!” ta junginuztean Lizarraga,  
ta jartzen ginuztean bizikletan gañen 50  
kl patata, manibelan gañen partea eta  
beste partea kuadron gañen, direkzioa  
jarri martxan eta etxea tarra tarra tarrra.  
Biajea aurrenekoa kategorin in genduan.  
Hor ni baño geixeo zekian bestek, gehio  
ibilita zeon ta harrek bazekian ta esan zi-  
tean “hoain bigarrengo biajen ez diau  
jun behar lengo tokitik, jun behar diau,  
guardiak eoten dittuken pare hortan  
menditik jun behar diau”. Giro ona  
zeoan, bizikleta gañen juteko mukoa ta  
guardia zibilek ez ikusteatik aunta goa-  
zela. Kargatu zitteau beize patatak, ta  
etxea gindoazela ogi zurie ikusi nitxoan  
han bistan “Ogi hoi salduko al ziazuke”  
esan nitxoan “ez dauket ba saltzeik, hau-  
xen bakarra deuku ta” esan ziteaken,  
baño emakume jatorra izan eta ogin  
erdie eman in ziteakean. Hartu nian kol-  
kon eta ogie janez bagatotzek. Betiko  
tokin han zeren guardia zibilek, hauntza  
jun eta “alto, que andáis?” “Si... con las  
patatas. Somos muchos hermanos y no  
tenemos para comer y...” near piskat in  
genduan, euki ginuztean hoge bat mi-  
nutu, kiston erretolikea eta azkenen  
esan zigutean “como otro día os vea, os  
quito la bici, patata y os vais a la cárcel”.  
Ta gutzako salbazioa, esan genduan  
“bai, bai, hurruna txintxo ibiliko gattuk”  
ta han bukau huan negoziua.

### **Ordun bi biaje ein eta...**

Bai, bi biaje in eta 100 kg patata ekarri  
genizkian bi biajetan. Hik bakik ze txollo  
zan garai hartan patatea? 100 kg patata  
etxen! Garai hartan aurretik jaten genian  
algarroba, boniato eta ogie plater txiki  
hauxen bezelako borobile, eskutik eskua  
moitzen baoan lurren zerrautxe bezela  
geatzen huan... nik etzekiat zekin inda-  
koa huan, ura etzeoan jateik. Boniatoa  
bastante ondo jaten genduan, algarroba  
zaile huan jaten. Goseik ez genduan  
pasau, baño jan zakarra janez bai. Atte  
zanak gau erdin lbasea etorri eta hortik  
iriñe moldatzen zian, zeatik lbaskok e  
ondo portatzen zittuan gukin, hartueman  
bagenduan.

Holaxen bizimodue, gerra ondorengoa  
gorra huan. Famili haundie eta diruik ez,  
eta bizi in behar.

## Geo bizikletakin jarraitu ze nun zeoze itten ala?

Geo bizikletan korritzen e ibili giñuztean.

### Baño karreratan eta hola, hala?

Bai, karreratan ibiltzen giñuztean ta Monteronea joten giñuztean, orduko pixkat ibilire iten giñuztean eta kamiseta Montero jartzten zona ematen ziuhan ta meyoratxon bat e izaten oan bizikletan eta EKIPO MONTERO. Zenbat karreratan ata giñuztean, ta bigarren atea nituan bein, malkaskotik beti gora, llegadea Zubizarretaneko hartan huan. Nik kanbioa baneukean baño bestea hobexea izan oan praktikoxeagoo, ta bere garaian kanbiau zian harek ondo ta ni bigarren, justu justu irabazi ziahen.

### Ze edadekin ibili zinen?

Urtek hamahiru o hamalau, tarte hortan. Ekipo Txapelgorri, txapelgorrikin korritzen genian. Ez genian gauza handik ein baño afizioa kistona. Deporte fuerte ematen genioan. Korrika re bai, korrika ere ibiltzen giñuztean, Donostiare joten giñuztean korrika ittea. Herritik hiru-lau bat laun ata giñuztean berrehun laun Amaran ta nik inian berrogehigarren. Korbata bat eman ziahen.

### Korbata bat!! jejeje

Ze.... ez da gutxi!

### Jejejeje!!

Armarion eukitzeko!

### Jejejejeje! Bokadillo bat eman ezgeo tira, baño korbata bat?

Bai, ta geo karrera bukatatun ta ezaune Amaran. Zein izango ta Andoni, Imanol Sarasolan lengusue, Epifanin semea. Kapitan izan huan barko merkatant. Kalen euki zien tabernea hoik. Geo hortik Donostia jun ituan. Ta harek hartu giñuztean Domingo ta biok bizikletan ta eman gintuan plaia, bizikletan, hiru laun bizikleta baten. Handik Kontxaño eaman eta itsason bañau eta atzea lengo lekua eaman, erropak kanbiau, hartu korbatea eskun, erropa bustikin eta trena hartu eta etxea. Berrehunetik berrogehi. Haf queda eso!! Ta fotografik e bazeukeat. Gu ez giñuztean leku baten eotekok eh? Bizikletan e asko ibiltzen giñuztean. Jaietan eta uuuufff... ikeragarri.

### Asteunetan zaille ez?

Asteunen ere asko ibiltzen giñuztean bizikletan, zeatio Zubingo baserritik azkena Lazkaon ibili nitxoan lanen eta goizen zortzietako lantokia, eguerdin bazkaltzea Zubiñea. Zubindik ordubitako lanea. Atsalden atzea Zubiña. Oseake



Axintxiok Ordizian izandako istripua.



Axintxiok, Domingo Garmendia, Aramako Tomas, Julian Garmendia eta Oskar Calleja Ordiziako lasterketan.



Axintxi (gidari), Imanol Lapizondo eta Imanol Iturrioz.

deportea nahiko ez al zan hura? Gerogoa Lazkaon bazkaltzen geatu giñuztean. Baño bizikletan ibili? Puuuuuuuufff...

Jai bazkalondo uda baten atea Itsasondotik, Nautikoko Pedro, Inaxio Arbilla eta ni, hiruok. Ata hemendik, Zumarratik, Bergaratik, Aretxabaleta Eskoriatza hoi dena, Vitoria... ta Vitoritik etxea, iluntze-ako. Nolako bizikleta izango ote zan?

### Ta nolako kamiñuk?

Me caguen la puñeta... Ta alimentua? Apitik arrautzak hartu, igual hartzen nizkian dozena erdi bat eo... ta manibelan kax, kax, kax, txurrit eta barrua. Diru pixkat baldin bagenun platanok eosten giñuztean. Platanok jaten giñuztean ta arrautzan bat e launei ematen nioan, klaro... ¡Handar por el mundo sin dinero!

### Jejejejeje.... Zure afiziok hoik izan die ala?

Hoik izan die bai.

### Bizikletan ibiltzea, kamioiak, ko-txek...

Kamioiak hainbeste urtetan ibili neok... Kanpoa ez neok asko ibili. Españi mailan, Portugalen, Frantzia.

### Baño beti kamioien bueltan ez?

Bai bai, beti kamioian bueltan. Eun batetako bueltak, Sebilla jun eun baten eta besten etorri ta holakok. Portugala, Galizia... Galiziare joten giñuztean ta bueltako kargaa ez genduan bilatzen, batzutan bai... Euki nian kamioi bat nere koñadokin sozio, eta joten giñuztean Galizia. Kamioi ona huan, Inglesa Austin, Donostiko inprenta batetik tabakontzako "zelta", ka-

jetillak itteko kartoiakin joten giñuztean. Zortzi bat tonelada eamaten giñuztean ta geo bueltan etortzeko kargaa bilatzen ibiltzen giñuztean, baño zaille izaten huan. Nik ordun iten nian papera eosi, porlan zakuk eta jartzten ziaten txatarrerin fardok inda, ondo indako fardok izaten zien, haundik, igual berrehun o ehun eta berrogeitahamar kiloko fardok. Dirue zeon tamañon, hiru mila kilo, lau... diru ere eamaten ginduan ta haik patu in behar izaten zien han. Etziun inok ezer ematen... haik patu, ekarri ta hemen salduta geneuzkean. Preziok jakiten nizkian hementegok ta hangok ta... ondo atetzen giñuztean. Kargata etorri ta baño askoz diru gehio atetzen genduan. Legorretan Felix Garmendiai saltzen ginduan. Ondo konpontzen giñuztean... holaxen ibiltzen giñuztean, a trancos y barrancos!

### Oan ia urte batzu jubilatatu ez?

Bai klaro, ni jubilatatu nitxoan ne hirurogehitabost urtekin baño hirurogeitamar urte pasatxo hor bueltaka ibili neok. Lana kargatorikoa nian, gustatzen zitzaienta. Lan estimatue... hain gustoa ibiltzen nitxoan gehiore settuko niala. Baño aiau huan uzteko orduere ta kitto, utzi in nian...

### Hoan e denbora pasatzazu!

Hoan ttririki ttarraka, batzatik, hemen ibiltzen neok bueltaka, gustoa.

### Badaukezu zeine.

Bai bai. Zeiñe bazeukeat eta denborea errez pasatzeiat, ondo, baño beti zerbait eitten. Holaxen bizimodue. ■

# 3 galdera motz



Axintxio (ezkerretik lehena) Ordiziako karreran Ermentari parean pasatzen.

## Zer dezu gustoko Itsasondotik.

Garai baten ambiente earra behiñipen. Ambiente bikañe. Gu beti laun asko izan giñuztean. Geo behin erretirau giñenen bizimodue beti kanpon indiau... ta erretiau gattuk auzo hortatik... baño herrin ondo ikusik izan gattuk eta iñorekin hasarrau gabe, ondo pasau genduan beti. Nire portatzen niñuan, Galizitik ekartzen nizkian puru earrak, eskuz eindakok. Garai baten mixeri audie izaten huan puruk eta konseitzeko eta ni Donostitik juten niñduan tabakon kajetilla hoikin A Coruña, tabacalera. Han ustutzen nian kamiona.. ta eun baten jun nittuan dirukin pre-pauta, han salduko ziteakeala kaje haundi hoitako bat puru ta... enkargatui esan nitxoan junda salduko ote liken, dirukin jun nitxoala eta... "etzaizula okurritu!" hitzik eittea esan ziteaken. "Ez dizue salduko, ta etzaizula okurritu esatea ezerre. Ez ez, jai daukezu horrekin". Iñun etzaiak tokatu eta han ikusi nian kamioia deskargau ta geo kanpoa atatzten jendea, ta bertako langilek katxeatzen.. "Ene, eskerrak ez diaten ezer esan" pentsau nian. Han kamioien hartu tabako kajak eta estaziota eamaten zizkieten geo repartitzeko. Bai honea o bai bestaldea. Eskerrak ez niala ezer esan... klaro, nik esan banian tabakoa eosteko intenziokin jun nitxoala auskalo nun jarriko niñun. Ta kitto, hortan geittu hoan. Geo galdetu nian dozena bat lekutan, estankotan, herritan netorrela, ta inun ez nian bilatzen, ta herri txiki txiki txiki baten, dozenerdi bat etxe o halakon bat eukiko zizkian, estanko jartzen zian baten geatu nitxoan. Jun niñuan ta "zu, zerbait eateko?" ata zeakean ta "aizu casualidadez ba al daukezu purun bat o saltzeko?" ta "Bai, zeoze badau" esan ziteakean, "zenbat nahi

ziñun?" "Ba emateko mun dauzkezunak" "Hamairu kaja dauzket ba..." hamairu kaja hartu nizkian.. ene ba... haik ittuan puruk! Bat settun han piztu nian. Hautse!! baño zuri, zuri, zurie... ta usai bat zeukean... Ziarroa erretzen etzue-nak, etxetik hasita, nere ondon eoten ittuan hue erretzen ai nintzenen, hare usaie aitzeko. Gozoa! Erabatekoa uan. Eta jaietan, Zapatea etortzen giñuztean bazkalondotan, igual hamar laun o hamabost igual, kuadrilan, ta bazekitean nik puruk neuzkela, ta launen-tzako eamaten nizkian, aldiko pol-txikon o trintxeran hartzen nizkian hamabost bat puru, mahaien jartzen giñuztean ta benga, kafek danontzako. Kopak danontzako eta purue danantzako eamaten nian nik. Eta ziarro autxe botatzen zona aurrena, ronda guztie pau behar izaten zian. Ziarro purue erretzen genduan hola goooora beida jarrita, purue gora beida eukitzen genduan. Holaxen gozatzen genduan. Geo handik atatzen giñuztean Villafranka aldea o Tolosa o... Earki afaldu, afari merienda eitten genduan... Villafranka juten giñuztean Jose Castellona, Zubizarretana eta bakallaue o tripakik eukitzen zizkian, ta afaldu eitten genduan sukaldea junda beakin ta hura jaten genduan. Tratoa eitten genduan "haber zenbat laun zeate, hamabi laun? Bi kazuela" "zenbat diru" "honbeste" "benga bale"... han jaten genduan hura eta postrea batzutan bai ta bestetan ez, ta geo juten giñuztean Bar Madridea. Han kafea hartu ta geo handik aurea bro-mak broman gañen. Guk festea guk jartzen genduan, guk ez genduan musika beharrik, geok jartzen genduan musikea.

## Ze botatzen dezu faltan Itsason-don.

Ni konpleto neok ta ez nuke ezer esango kitto, ondo bizi gaittuk eta bere hortantxe utziko nitek.

## Iñioiz izan dezun ametsen bat, bi-daien bat, kamioien bat...

Beti izan diat ilusioa automobil on bat eostekoa, gaztea nitzen garaian... ez nian kontsegittu, diru asko balio zien. Berrik etortzen ittuan kamionak adjudikauta. Adjudikau eta eon behar izaten zian bi urten, hiru urten zai batetik eta bestetik diru asko behar izaten zian. Ordun e izaten ittuan dirue asko zeukeanak, ta urte erdi bat o eoten huan zai eta harek kontsegittu iten zian. Horretxan ilusioa eukitzen nian beti, baño ez nian kontsegittu, ez neukealako diruik. Hoixe bai, hoan Leilan Kometa berri bat eskatuko nian, Leila Kometa. Hoik asko zekien automobile-tan. Izan hoan zoragarrie eta ona. Dotorea gañea eta ibiltzeko oso komodoa. Aberi gutxi izaten zona, Arreglatzeko herraminta gutxi behar izaten zona, esaten zien llabe inglesa batekin motorra askau eta montau in zeikela llabe batekin. Hain ona huan, eta inglesa hoan. Beste bat e baoan, modelo haundigoare baoan, Leila huan hurre... zoragarrie... baño txorik bezelaxe burutik ibiltzen ittuan haik e. Hoixen izan huan nere nahia baño ez nian kontsegittu. Geo "a base de sudar mucho" kamioiak onak e euki dizkiat, baño hoi gero. Attona zaharrak e garai baten dotore asko etortzen ittuan, ta zein jetxiko ta bi attona, attona eta amona zahar zahar bat. Chebroletak, Cadillac-ak eta... Melilla Madrider alde hortatik etortzen huan. Dotorek etortzen ittuan. Ta gurire igual pasau zaiuk. Zahartu in gattuk eta ibiltzeko guazare ez oan holakotan. ■



# Windows eta bere garapena (eta II)

*Pantaila beltz batetik hasi eta milaka leiho ireki eta gezi batekin ibiltzera heldu den sistema eragile erabiliena.*

## WINDOWS 98 (1998)

Hiru urte geroago, Windows 98 ateraz. Windows bertsio honek ez zeukan aldaketa handirik 95eko bertsioarekin konparatuz. Aldaketa bakarra zen bertsio berri hau gehienbat Internetera (geroz eta jende gehiagok erabiltzen du Internet lanerako edo aisialdirako) eta multimedia enfokatuta zegoela.

Multimedia arloan asko sakondu zuten Windows bertsio hau, bai jokotarako eta baita musika edo bideoak ikusteko ere. DVDak ikusteko aurreneko sistema eragilea izan zen. Lehenengo USBak ordenagailuetan ikusteko aukera ere ematen zigun.


## WINDOWS ME eta WINDOWS 2000 (2000)

Windows ME (edo Windows Millenium) guztiz multimedia mundurako enfokaturat dago, eta baita ere etxeko erabilerarako. Windows bertsio honetan, aurreneko aldiz dator Windows Video Maker, non gure bideoak editatzeko aukera ematen digun. Horretaz aparte, makina bat programa ekartzen ditu gure argazkiak, bideoak e.a. editatzeko eta kudeatzeko. Bertsio hau argazkiak, bideoak edo musika egiteko zaletasuna daukatenentzako pentsatuta dago.

Windows 2000, berriz, bertsio profesionala da; hau da, enpresentzako pentsatua. Windows 2000 berez da Windows NTren bertsio modernoagoa. Windows 95 eta Windows 98aren ezaugarri batzuk ditu, baina enpresentzako da. Zerbitzari datuak, automatak, robotika e.a. arloetan aplikatzen dena.

## WINDOWS XP (2001)

Esan dezakegu, Windows XP Microsoft-en sistema eragile onenetarikoa dela. Bere apartatu grafikoa hobetu zuten, eta orain arte Microsoft-ek egin ez duen gauza bat aplikatuko dute. 98tik 2000ra, Internet erabiltzeagatik birus informatikoak agertzen hasi ziren.



Windows XPn jartzeaz aparte, firewall (edo corta fuegos gaztelaniz) jartzeko aukera ematen digu, eta horrela, gure ordenagailuaren segurtasuna bermatzen du, birusak ez sartzeko.

Esan beharra dago baita ere, grafikoki eta estetikoki asko landu zutela, eta bai aisialdirako eta bai lan profesionalentzako sortutako sistema eragilea dela.

Gainera, aipatzekoa da, lehenengo aldiz sistema eragile honetan urrunetik kontrolatzeko aukera ematen zigula, hau da, ordenagailu bat erabili edo kontrolatzeko aukera ematen zigun beste ordenagailu batetik.

## WINDOWS VISTA (2006)

Windows Vista ere segurtasunari enfokaturat dago, baina ez Windows XP bezala: Windows Vistak badauzka Windows XPk dauzkan ezaugarri guztiak. Bere segurtasuna gehienbat kudeatzeko arloan dago enfokaturat.

Ordenagailu baten Windows saio desberdinak (kontu desberdinak) egin ditzakegu: batek administratzailea, beste batek erabiltzaile normal bat, beste batek hainbat pribilegiorekin... Bakoitzak bere erabiltzaile izenarekin eta pasahitzarekin dagokion saioa irekitzeko ordenagailuan. Hau ikusita, erabiltzaile batzuk programa batzuk erabiltzeko aukerak ez ditu izango besteekin konparatuz. Adibidez, administratzaileak eman diezaieke erabiltzaile batzuei Interneten ibiltzeko aukera, eta beste batzuei, berriz, ez.

Baina, kudeaketa sistema honengatik bateraezintasun arazo asko sortu zitzaizkion sistema eragileari.

## WINDOWS 7 (2009)

Windows Vistak zeuzkan bateraezintasunak ikusita, jende asko zen Windows XPra. Baina, Microsoft-ek aterako zuen hobeakuntza bat: Windows 7.

Windows hau Vista bezalakoa da; baina, administratzeko sistema guztiz berri zuten, programekin arazoak ez sortzeko. Esan dezakegu, Windows XP eta gero Windows 7 izango dela egonkorrenetarikoa bat. Gaur egun oraindik asko erabiltzen da.

## WINDOWS 8 (2012)

Mugikorretan sortutako boom-ari esker, Windows hau sortu zen. Gehienbat, mugikorrentzako eta tablet-entzako dago pentsatuta.

Eratik desberdina da besteekin konparatuta. Inicio/Hasi botoia desagertzen da, eta "escritorio" famatua ere aldatzen da. Programa guztiak laukitxoak dira, mugikorretan bezala.

Windows honen helburua da mugikorretan fama handia hartu duen dinamika hori ordenagailura ekartzea. Eta hori da lortu dutena. Windows 7 bat, azken finean, baina laukitxoetan.

Aurki beste Windows bat izango dugu, baina azaldu arte ez dut ezer esango. Errepaso honekin, espero dut zuen gogora ekarri izana aspaldiko sistema eragile horiek. Baita ere, espero dut jendea konturatuko zela, gaur egun klik batzuk eginda gauza asko egin daitezkeela, eta ez hasierako sistema eragileetan bezala, dena komando bidez idazten zela. ■



## Gabiria-Ormaiztegi-Gabiria

**G**abiriako plazatik Ormaiztegirantz abiatuko gara. 100 bat metro egin ondoren, bidegurutze batera helduko gara, eta bertan, eskuineko bidea hartuko dugu, Gabirizar txiki baserrira iristeko. Ondoren, hormigoizko pistatik jarraituko dugu, eta lehenengo bihurgunean, zuzen jarraituko dugu; basotik barrena doan bidexkatik. Handik, behearazko bidea jarraitu, eta laster, Udabarro baserrira helduko gara. Gero, Ormaiztegiko norabidean jarraitu eta uraren deposituen aldamenetik pasa ondoren, Gabiria eta Ormaiztegi batzen di-tuen errepide nagusira aterako gara. Udabarro behekoaren aurretik igaro, errepideari jarraitu eta frontoi zaharraren ondoan, ezkerretara hartuko dugu. Bide horrek Sagastiberr baserrira

garamatza. Bidea jarraitu eta eskola inguratu ostean, zubi-bidea gurutzatuko dugu. Handik, aurrera jarraitu eta segituan ezkerretara goraka doan bidetik jarraituko dugu, Odolkiaga baserrira iritsi arte. Bide nagusitik zuzen jarraitu eta laster hel-duko gara Gabiriako herrigunera. ■

**Iraupena: ordu bat eta 15'**

**Ibilbidea:**  
**Gabiria-Ormaiztegi 30'**  
**Ormaiztegi-Gabiria 45'**







01

Gabiriko plaza



02

Alkain txiki



03

Gabirizar



04

Udabarro



05

Mekola



06

Ormaiztegiko haurreskola



07

Sagastiberri



08

Odolkiaga



09

Alkain



Gabiria



# Bularreko minbiziaren 12 sintoma

**2014ko abenduaren 12an bularreko minbiziari buruzko hitzaldia eduki genuen Itsasondan. Aran Roman gonbidatu genuen, eta bere esperientzia oinarritzat hartuta, bularreko minbizia detektatzeko 12 sintomei buruz hitz egin zigun. Honakoak dira sintoma horiek: gogortasuna, arraildura, erupzioa, gorritasuna edo erretasuna, isuri ezezaguna, zuloak, barruko kozkorra, laranja azala, asimetria, titiburua hondoratzea, zain handitasuna eta konkorra.**

**A**ran erizaina da, eta zainketa aringarrietan eta etxeko ospitalizazioan aditua gainera; hortaz, gaixotasunari bi ikuspuntutatik begiratzeko aukera izan du. Oso bizipen gogorak bizi izan ditu 2013an kozkor bat detektatu zuenetik. Prozesu guztia pasa eta gero, orain fase kronikoan dago, “gerokoa bizitza guztia iraungo duena da, inork kontatzen ez dizuna” berak esaten duen bezala, eta herri desberdinetan hitzaldiak ematen hasi da emakumeok autoazterketaren garrantziaz jabetzeko.

Bere hitzaldiak gazi-gozo puntua izan zuten; ezin liteke beste era batera izan. Bere bizipenei buruz aritu zenean, barrenak mugitu zitzaizkigun. Honako esaldiok barruraino iristen zaizkizu: “zure umeari ezin diozunean muxurik eman ezin zare-lako mugitu” eta “minbiziak nire bizitzatik soberan zegoen guztia eraman du eta bakarrik merezi duenarekin utzi nau”.

Berak islatzen dituen indarra, positibismoa eta umorea izugarriak dira. Oso gaizki pasatu du, bai, baina energia izugarria transmititzen du.

Askotan arazoak bilatzen ditugu ez dauden lekuetan, eta benetan garrantzia daukanari uko egiten diogu. Bizitzan pentsatzeari utzi eta bizitza bizi egin behar dugula konturatzeko Aranen adibidea ikustea besterik ez dago.

Bi hitzetan labur dezakegu bizitzaz ikasi duena: egizu aurrera. Eta hain zuzen ere, horixe bera egiten ari da. Ez du lehen bezala ikusten, ezta entzuten ere; motxila bat kargaz beteta bizkar gainean eramango balu bezala dabil; erreflexua dauka, baina ez dauka lehen bezalako sentsibilitatea eskuetan; ile lisoa erabat

kizkurtu zaio... Horiek eta askoz sintoma gehiago gehitu genitzakeen zerrendan, baina hala ere, bizitzako azken gauza baltitz bezala egiten du ekintza bakoitza, eta hori nabaritzen da; bizia bizi egin behar dugula, eta munduko arazo guztien jabe ez garenez, barre egiten ere ikasi/jakin egin behar dugula esan zigun hitzaldian, besteak beste.

Honakoak izan ziren hitzaldira joan ziren emakume batzuek esandakoak:

- “Oso polita, interesgarria, goxoa eta berotasun positiboa islatu zuen hitzaldia izan zen”.
- “Telebistan iragarki asko ikus ditza-kegu, baina horretara ere ohitu egi-ten gara. Gaur arte ez dut ondo barneratua eduki zein garrantzitsua den autoazterketa”.
- “Aran ile zoragarria daukazu, jendeak dirutza ordaintzen du zurea bezalako ile sendoa edukitzeko”.

Espanian bularreko minbizia da ohikoena emakumeen artean eta kopurua urtero handituz doa (% 2-3 urtero azkeneko bi hamarkadan). EAEn ere bularreko minbizia da emakumeei gehien eragiten diona.

Fenomeno hori, biztanleriaren zahartze progresiboagatik, detekzioa handitzeagatik, dieta aldatetengatik edota seme-alabak edukitzeko garaia atzertzeagatik izan daiteke.

Hala ere, heriotza-tasa gutxitu egin da azkeneko urteetan, Titietako Minbizia Goiz Detektatzeko Programei (TMGDP) eta tratamendu sistemikoari esker.

Garrantzitsua da jakitea, honakoa jasaten duten emakume gehienak ez dituztela arrisku faktoreak identifikagarri




izaten, nahiz eta beste alde batetik, ikerketa epidemiologiko ezberdinek minbizi-maiztasunean aldaketak izatea arrisku-faktore sentikor batzuei lotuta dagoela erakusten duten. Arrisku-faktore horiek dietari, jarduera fisikoari, loditasunari, tabakoari, alkoholari, substantzia toxikoen aurreko esposizioari, eta azken batean, bizimoduari lotutako prebentzio-estrategien arabera aldatu daitezke.

Hiru hauek dira arrisku-faktore azpimarragarrienak: adina, aurretik izandako bular minbizia, eta bular minbiziaren lehenengo graduari dagokionez familian izandako aurrekariak. Gainontzekoak: familia-gaixotasun historia, gehiegizko GMI (gorputz masa indizea), Mastopatia onberaren aurrekariak, lehen haurdunaldi berantiarra bezalako ugalketa faktoreak, umerik ez izatea, menarkia goiz izatea, menopausia berantiarra, oso gaztetatik ahoko antisorgailuak erabiltzea eta erradiazio ionizatzaileak jasatea, elikadura, jarduera fisikoa, gizentasuna, tabakoa, alkohola eta substantzia toxikoen aurrean egotea.

Bularreko minbizia kasu guztien %8 inguru hereditarioak dira, eta kasuen erdiak, bularreko minbiziaren bi gene sentikorraren mutazioari egozten zaizkio; hain zuzen ere, biztanleriaren %3 inguruk dituen BRCA1 eta BRCA2 geneen mutazioari.

Norberaren lanbideak gaixotasun hori izatean eragina izan dezakeela baieztatzea zaila izan daitekeen arren, irakasle, botikari, osasun langile, industria kimiko langile, telefoniako langile, irrati esatari eta ile-apaindegiko langileen moduko lanbideek beste lanbide batzuk



Aran Roman hitzaldia ematen.

baino eragin handiagoa izan dezaketela esaten da.

Baliagarriak izan daitezkeen zenbait gomendio:

- **AZTERKETA:** Jar zaitetz ispilu aurrean eta behatu zure bularrak. Beha itzazu arretaz bular baten eta bestearen arteko ezberdintasunak: bularren inguruak, kozkorak, erroibetak, titiburuko eta azaleko uzkurdurak. Begira ezazu ultrarazio, ekzema edo tituburutik jariorik ba ote dagoen (edoskitze garaian esne pixka bat ateratzea normala da).
- **HAZTAPENA:** Etzanda, burko bat sorbaldaren azpian jarrita, besoa jaso, buru azpian jarrita erdiko hiru behatz-muturrekin zanpatu bularra eta egin itzazu gutxienez hiru zirkulu zentrokide titiburuaren inguruan, erloju-orratzen zentzuan. Besapea ere haztatu kozkorrik ez dagoela ziurtatzeko. Egin berdina beste bularrean.
- Jarrera berdinean, zanpatu titiburua behatz lodia eta erakuslearen artean jariorik ez dagoela ziurtatzeko, eta altxatu titiburua areolarekin batera, higikortasunik edo atxikitasunik ba ote dagoen ikusteko.
- **UTZI TABAKOA ETA ALKOHOLA:** Kalte larriak eragiten dizkiote zure osasunari.
- **KIROLA EGIN, MUGITU:** Zure gorputza edozein gaixotasuni aurre egiteko prestatuago egongo da.
- **DIETA OREKATUA EGIZU:** Ez itzazu gozo eta hestebete (enbutido) gehiegi jan. Fruta freskoa, barazkiak eta arraina izan behar dira zure dietako osagai nagusiak. Ikerketa zien-

tifikoekin probatuta dago, gaixotasun hilgarri honen sorrerak elikadura ohiturekin zerikusi nabarmena duela. Dieta orekatuak minbiziaren arriskuei aurre egiten laguntzen du.

- **PISU OREKATUA MANTENDU:** Onartu zure gorputza bere horretan. Emakume gazteen artean, batez ere, argaltzeko borroka etengabea izaten da. Saihestu gehiegizko pisua, baina baskularekin itsutu gabe.
- **MEDIKUARENGANA JOAN:** Bularretan ezer arrarorik nabaritzen baduzu, joan zalantzarik gabe, lasaiago geratuko zara eta. Batez ere:
  - Bular bat bestea baino gehiago handitzen edo txikitzen bada.
  - Bularreko azalak uzkurdurak edo orbanak baditu edo pitzatuta badago.
  - Bularren titiburutik likido argia, esnetsua edo odoltsua irteten bada eta haurdunaldian edo edoskitze garaian ez bazaude.
  - Titiburua uzkurdu egiten bada edo zauridurak baldin baditu.
  - Ugatzean edo besapean kozkorren bat azaltzen bada.

Gogoratu, 40-50 urte artean azterketa medikua gutxienez bi aldiz egin behar duzula, eta 50 urtetik aurrera bi urtean behin pasa behar duzula kontrol medikua. Hala ere, 40 urte egiteko zain egon beharrean, 20 urtetik aurrera zure bularren autoazterketa hilero egitea komeni da.■

## Iturria: “Osasunerako hezkuntza egitarau bat”

Emakume Mastektomizatuz Elkartean Federazioa Euskal Herria Osakidetza / Eusko Jaurlaritza / Institutu Onkologikoa

Informazio gehiago nahi izan ez gero:

- Katxalin: Bularreko eta Ginekologiako Minbiziagatik Eragindako Gipuzkoako Emakumeen Elkartea. katxalin@katxalin.org Tel. eta faxa: 943245608. Zarategi plaza 100, Txara 1. 20015 Donostia.

### • Interneten:

- Abc del cáncer: Gaixo eta familientzat minbiziari buruzko informazio orokorra.
- AECC: Informazio eta baliabideak eskaintzen ditu gaixotasuna erazuteko.
- Asociación Española de Investigación sobre el Cáncer: Gaixo eta familiei laguntza eskaintzen dien elkartea, ekintza, argitalpen eta laguntza-taldeekin.

Mila esker Aran zure esperientzia kontatzeagatik eta mila esker ere autoazterketaren garrantziaz jabetuarazteagatik.

Eskerrik asko hitzaldira gerturatu eta bertan parte hartu zenuten guztioi ere. Emakumeok gogoratu hilean behin autoazterketa egin behar dugula! Gutxi eginda asko prebenitu dezakegu!

Gelditu? Inoiz ez.  
Aurrera egin? Beti.  
Etsi? Sekula ez.

# Gure basoen historia laburbilduz

**B**asoak lurzorua eta baldintza klimatikoak menpe daude. Hori dela eta, aldaketa klimatikoak dira basoen banaketaren historia idazten dutenak. Honakoa jakinik, hurrengo galdera datorkigu burura: “Noiz sortu ziren egungo baso-paisaiaren oinarriak?” Gaurko basoen banaketaren oinarriak azkeneko glaziazioaren ondoren hasi ziren sortzen, orain dela 6.000 urte inguru; klima egonkortzen hasi zenean, hain zuzen ere. Orduan sortu ziren, gutxi gorabehera, oraingo tenperatura tarteak, erregimen hidrikoa eta kantauriar kostaldeko baldintza atmosferikoak. Baldintza hauek izan ziren, hain justu ere, basoko espezie klimatikoak, laborantza-lurrak, etxeko animaliak eta bertan bizi garenok ohiturak baldintzatu zituztenak.

Garai haietako landaredia eta landare espezieak paleobotanikak aztertzen ditu. Hainbat ikerketen arabera, badirudi azken glaziazio honen ondoren, Pinus generoko espezie batzuk oraindik ugariak ziren arren (aurreko garai hotzaren ondorioz) espezie nagusia Quercus generokoa zela (haritzaren genero berekoa). Azken honi, Corylus eta Ulmus generoko espezieak jarraitzen zioten (hurritza eta zumarraren generoak, hurrenez hurren). Badirudi, garai hartan, Pinus generoko espezieak mendi-gune hotzetara mugatuak geratu zirela. Espezie aitzindari hauen ondoren, beste genero batzuetako espezieak sartzen hasi ziren; Alnus (haltzaren genero berekoa), Fraxinus (lizarraren genero berekoa), Tilia (ezkiaren genero berekoa), Abies (izeiaren genero berekoa), Fagus (pagoaren genero berekoa), Castanea (gastainaren genero berekoa) eta Buxus (ezpelaren genero berekoa) espezieak, besteak beste. Ordurako Homo sapiens sapiens espeziea hasia zen zuhaitz hauen egurra erretzen eta bere inguruan aldaketak egiten.

Ordutik, gizakia bere ingurua beharren arabera moldatzen joan da. Horrela, Neolitoko gizakiak egin zituen lehen soilketak basoan nekazaritza garatzen hasteko. Soilketa txikiak izan ziren, baina aipatzea merezi dutenak; izan ere, gizakia lehenengoz basoa usiatzen hasi zenetik gaur arte aldaketa ugari jasan ditu Euskal Herriko baso-paisaiak.

Erdi aroan, oraindik, basoak oparoak ziren; inork ez zuen uste desagertuko zirenik, eta beraien aprobetxamendua ez zegoen arautua. Baina garai hartan, burdingintzak, ontzigintzak eta erai-kuntzak egurraren kontsumoa igo eta basoen atzeraldia ekarri zuten. Honek, basoekiko interesa zabaldu zuen eta gatazkak hasi ziren. Gatazka hauek basoen erabilera lehenengo aldiz arautzea ekarri zuten. Horrela, XV. mende amaieran eta XVI. mende hasieran basoen atzerapena gelditzeko baso teknika zehatzak eta lege berriak sortu ziren. Hala ere, basoak mantentzeko neurri hauek ez zuten emaitza nabarmenik lortu, eta basoek atzera egiten jarraitu zuten. Hau gutxi balitz, industria jarduerak garatzen ziren heinean basoek okerrera egiten zuten.

XVIII. mendera arte, basoak udalen diru iturririk nagusienak izan ziren. Basoen produktibitatea murriztu zenean, ordea, udalek lur komunalak saldu beste aukerarik ez zuten izan, eta XIX. mendetik aurrera baso gehienak esku pribatuetara pasatu ziren.



Garai bateko ikazkinak kudeatzen zituzten basoen egoera Itsasondon.

Lur horiei etekina ateratzeko asmoz, koniferoak (intsignis pinua, bereziki) landatu zituzten. Honek aldaketa handia ekarri zuen ekonomian eta paisaian; paisaia monotonoa bilakatu zen, konifero hauek gure lurraldearen %75a estaltzera iritsi baitziren 70eko hamarkadan. Baina 1984-1993. urteen artean egurraren salneurriak krisialdi sakona jasan zuen (beste arrazoi batzuen artean, kanpotik ekarritako egurra merkeagoa izateagatik eta paper fabriken krisialdiagatik). Horrela, gaur egunera etorrita, XXI. mende hasieran koniferoek lurraldearen %59 estaltzen dute, eta espezie hostozabalak lurraldearen %25 izatetik %40 izatera pasa dira.

Gauzak horrela, basoak berriz ere eraldatzen ari dira, baina oraingoan ekonomiak, industriak eta ingurugiro ereduak baldintzatuta; hau da, basoak egungo gizartearen beharren arabera aldatzen ari dira eta aldatuko dira.

Azkenik esan, XX. mende bukaeran mendien funtzioak dibertsifikatu egin dira. Horrela, funtzio produktiboa eta soziala izateaz gain, ezinbestean bete behar duten eta bermatu behar dugun beste funtzio bat betetzen dute mendiek; funtzio ekologikoa, hain zuzen ere. ■



Itsasondoko baso paisaia Murumenditik begiratuta (2015eko martxoa)



## Emakume eguna

**M**artxoaren 8an Itsasondoko plazan eta elkartearen adin eta jatorri ezberdinetako 35 emakume elkartu ginen. Bertan bildutakoek "Zerk bultzatuta eta zein helbururekin elkartu zineten?" galdera eginda makina bat erantzun jaso genituen, eta guztiek ere bat egiten zuten erantzunetan; belaunaldi ezberdinetako emakumeak elkartu, aspaldi ikusi gabekoekin egon eta elkarren berri izan, eta bazkari eta bazkaloste atsegina igaro denok batera, izan ziren erantzunak. "Emakumeetaz oroitu direla, eta bazkaria prestatu eta zerbitzatuko digutela, eta nola ez gara ba etorriko?" zioten batzuek.

Bazkariari ez zitzaion eman nahi izan kutsu malenkoniatsu edota goibelik; ez ziren aipatu historian zehar emakumeek jasandako jazarpen, gutxiespen, diskriminazio, zapalkuntza eta bazterketak.

Hala ere, han elkartutako guztiok ondo ezagutzen genituen esandako egoerak, maila handiagoan edo txikiagoan denok bizi izan baikenituen horrelakoak. Gaur egun amona direnek poztasun handiz ikusten dute beraien alaba eta ilobek egindako aurrerapausoa; hau da, aspaldidanik gizartearen errotutako jokabide edota pentsaerak eraldatzeko egindako lana edota ahalegina, eta horren ondorioz jasotako fruituak.

Emakume guztiak konplizeak gara, eta argi daukagu ama, ahizpa, arreba, amona, lankide, lehengusu eta lagun diren emakumerik gabeko munduak hutsune handi bat izango lukeela; eta, era berean, emakumeen arteko komunikazioa, enpatia, elkartasuna, elkarlana eta maitasuna ezinbestekoak direla.

Ospakizunarekin jarraitzeko, urteroko omenalditoxa ere ez zen falta izan. Egun honetan, urtero herriko emakume bat omentzen dugu. Orain arte, besteak beste, Lorentxa, Julita, Rosi, Lourdes, Maria Dolores, Pili, M<sup>a</sup> Rosario eta Milak jaso dute omenaldia, eta aurten Maria Biktoriairen txanda izan da. Omenaldia egiterakoan, omenduak laguntzeko beti izan duen prestutasuna eta herriari emandako alaitasuna gorai-patu genituen; herriari laguntzea, eta herrian irria eta alaitasuna zabaldu izana eskertu genizkion.

Gauza asko ditugu ospatzeko, eta, hain zuzen ere, horrexegatik erabaki genuen egun hau jai giroan eta umore onez ospatzea; hala ere, egun hau jai giroan ospatu arren, ezin dugu inoiz ahaztu oraindik bidea ez dela amaitu eta asko dagoela egiteko. Hortaz, ez dugu etsiko!

Gora Itsasondoko emakume langileak! ■



Plaza egindako konzentrazioa.



Elkartean bazkaltzen.



Maria Bittoria aurten omenaldia jaso duen emakumean.



Orain arte omenaldi jaso duen zenbait emakume.

## Euskararen kupeletik, txootx!

**K**orrikaren etorrera ospatzeko, mintzalagun taldekoek beste zenbait herritarrekin batera, Sagardotegira irteera antolatu zuten.

Bazkaria Legorretako Sagardotegian izan zen, eta joan-etorria oinez egin zuten. Nahiz eta eguraldi kaxkarra izan, giro ezin hobean ospatu zuten eguna sagardo eta txuleta artean. ■



Korrikako materiala saltzen.

## Euskal Herriko mus txapelketa

**2**015ko urtarrilaren 24an (larunbata) jokatu zen Itsasondoko VII. Euskal Herriko Mus Txapelketa. Arratsaldeko 15:00etan, Kaxintanen burutu zen herriko finala, eta 8 bikotek hartu zuten parte. Norgehiagoka estuaren ondoren, irabazleak Legorretako Joseba Goikoetxea eta Patxi Salaxar izan ziren. Txapeldunorde, ostera, herriko Lontxo Arza eta Jose Ignazio Arbilla (Txitxi) geratu ziren. Irabazleek bi untxi eta bi ardo botila jaso zituzten sari gisa, eta txapeldunordeek bi ardo botila. Horrez gain, irabazleak Alegin jokatuko den Gipuzkoako finalerako pasea ere irabazi zuten. ■



Sari banaketa.

## Nahia Mate Duhau, igeriketako Euskadiko txapelketan

Igeriketa munduan ohitura handiko bi familiatik dator Nahia. Badira urte batzuk, aitona Alberto eta amona Mari Karmen igerilekuz igerileku zebiltzala txapelketa ezberdinetan, arbitro eta kronometratzaile moduan.

Kloro usaina azalean eta igeriketa bihotzean dute Mate Duhau familietako kideek. Orain etxeko gazteen txanda iritsi da.

Azken hilabeteetan Itsasondoko gure sirenatxoak Gipuzkoa eta Euskadiko Txapelketetan hartu du parte. Urteetako entrenamenduek bere emaitza eman dute. Bidea hasi besterik ez du egin, baino ondorengo urteetan Itsasondo, igerilekuetan ezagutaraziko duenaren dudarik ez dut. Bere aurretik, Gorka eta Josu Sarasola anaiek egin zuten moduan.

Zorionak Nahia eta segi gogor lanean maitatzen hasi zaren kirol horretan, IGERIKETA. ■



Nahia Mate

## Itsasondoko herri ekimenaren errifa

**U**rtarrilaren 8an egin zen ITSASONDOKO HERRI EKIMENAK antolatutako errifaren zozketa, eta 1.089 zenbakiaren jabeak eraman zuen saria; Andres izan zen irabazlea. Behin zozketa eginda, gure helburuak lortutzat eman ditugula esan dezakegu; hain zuzen ere, inposaketaren aurrean herriak erantzun zehatz bat ematea eta gastuei aurre egitea.

Herriko zenbait lagunek egindako ekarpenei esker osatu genuen saskia, eta HERRI EKIMENAREN aldetik, modu batean edo bestean parte hartu duzuen guztioi eskerrak ematea besterik ez zaigu gelditzen. ■



Pinok Andresi saskia ematen.

## Cho Oyu hitzaldia

**P**edro Garcia, Xabier Urrate eta Oier Plazaola mendizale goierritarrek joan den urriaren 2an zapaldu zuten Cho Oyu (8.201 m) mendiaren gailurra. Han grabatutako irudiekin Jainkosa turkesa dokumentala osatu dute. Horixe bera ikusteko aukera izan genuen Otsailaren 20an herriko kultur gunean. Azalpenak ematera Pedro Garcia eta Xabier Urrate etorri ziren, eta dokumentala ikusi ondoren, solasaldirako tarteak izan genuen. Bertan, esperientziaren anekdotak, momentu gogorak eta hurrengo asmoak ere gertutik ezagutzeko aukera izan genuen. Emanaldian 40 bat lagun bildu ginen. Mila esker bertaratu zineten guztioi, baita Pedro eta Xabierri ere! ■



Xabier Urrate eta Pedro Garcia.



## Torrada lehiaketa

**O**tsailaren 13an, Torrada lehiaketa ospatu genuen herrian. 7 partaide izan ziren eta guztiek ere jaki goxogoxoak prestatu zituzten. Gorka Martinez, Jubilatuen elkarteak Eduarne eta Bixenta, eta Gaztelekuko Mattin izan ziren epaimahaikideak. Guztiek ere, aurkeztutako lanen kalitatea goraiatu zuten, eta erabakia hartzea erraza izan ez bazen ere, epaimahaia hartu zuen erabakia; irabazleak, Naroa Gorostizu eta Irati Arbillaena izan ziren. Ondoren, probatzeko aukera izan zuten bertaratu ziren herriarrek. ■



Gorka, Bixenta, Eduarne eta Mattin epaimahaikideak





( gure ingurunea ezagutzen )

**Itsasondo-Aralar** (Mankomunitatea)

Herriarekiko sentimendua lurralde konkretu bati lotzen ohituta egon arren, muga ezagunak, erosoak egiten zaizkigun horiek, halabarrez gainditu beharra ere tokatzen zaigu noizbehinka.

Aspaldi batean ere horrelakoak gertatu omen ziren geurean eta inguruko herrietan. Ganadua gobernatu behar, biziko baziren eta etxean nahiko jaterik ez bazen. Zorionez, goiko mendiek udarako beharrak asetzeko aukera eskaintzen zieten, eta laguntza horri nola edo hala heldu behar, urterokoa osatzea lortuko bazuten.

Seiehun urte pasa dira Goierrri eta Tolosaldeko 15 herri elkartu, eta ustez beraienak ziren Enirio-Aralarko lurak garaiko jauntxoei erosi zizkienetik. Pentsatzekoa da, orduan ere erabakiaren inguruko adostasuna lortzea ez zela batere samurra izango, eta ondo kostatako dirua erabiliko zutela.

Harrezkero, liskarrak eta borrokak falta izan ez badira ere, Enirio-Aralarrek 15 herrien ondare izaten jarraitzen du. Eta gauzak asko aldatu badira ere, Aralarrek orduan adina ondasun eskaintzen jarraitzen du. Gaur egun, Parke Natural bihurtu dute eta Europako naturgune babestuen sarean sartzerara iritsi da. Natura, kultura, paisaia, ohiko erabilerak eta berriki sortu direnak, bere lekua izaten jarraitzen dute Aralarren.

Gure aurrekoek adostea lortu zuten elkartasun hori babestu eta bizkortzea kide garen herrien esku dago oraingoan ere; garai hartan bezain beharrezkoa dugu. Ordainetan, larreak eta basoak, harkaitzak eta leizeak, aziendak eta basapiztiak, daukagu Aralarren. Baina denen gainetik herrien muga estuak zabaltzeko eta elkarrekin saiatzeko sortarazten digu alaitasuna. Ondare moduan jaso ditugun lurak gozatzen jarraitzeko moduan gara. ■



( errezeta )

**Txipiroi eta otarrainxadun entsalada epela****Lau lagunentzat osagaiak**

8 txipiroi, 12 otarrainxka, 12 txirla, lau lagunentzako askotariko entsaladak, kuiatxo txiki bat, tipula bat, tomate bat, baratxuria eta perrexila.

Oliba-olio birjina, Jerezko ozpina, gatza eta piper beltz apur bat.

Kuiatxoa zatitu eta tomatearekin batera ur irakinetan egingo dugu, 15 minututan. Ostean, guztia ur hotza eta izotz apur bat dituen ontzi batera botako dugu, kontrastea lortu eta zaporea goxatzeko. Gero, tomatea zuritu eta haziak kenduko dizkiogu. Guztia gordeko dugu. Ondoren, tipula txiki-txiki egin, eta oliba-oliotan su baxuan, 15 minututan, potxatuko dugu. Gero, tomatea fin-fin moztu eta gainerakoari gehituko diogu. Gatza botako diogu. Ondoren, txipiroiak Juliana erara moztu eta pare bat minututan oliba-olio berotan zartagin baten salteatuko ditugu. Gero, zuritutako otarrainxkak, txirlak eta baratxuri eta perrexil txikitua gehituko dizkiogu. Dena salteatu eta txirlak irekitzen direnean, zartagina sutatik kendu eta tipula eta tomate potxatuarekin nahastuko dugu. Ostean, zartaginean ozpin-olioaren osagaiak nahastuko ditugu, zapora guztiak busti daitezten. Bukatzeko, guztia ondo nahastuko dugu.

**Montajea**

Platerean uzta handi bat jarriko dugu. Gero, alboetan bi kuiatxo xafra jarri eta gustuari mezlum-a (entsalada) gehituko diogu. Uztairenen inguruan, hiruna otarrainxka eta txirla jarriko ditugu, eta gainontzekoa (txibiak tipulatxo eta tomatearekin) urazaren gainetik zabaldu eta ozpin-olioarekin geure gustura onduko dugu. Bukatzeko, perrexil txikituekin, alpapa kimuekin eta abarrekin apaindu edo dotoretu, eta kito! Jateko prest izango dugu.

On egin! ■



**Juanan Jiménez**  
Altamira jatetxea. Ordizia  
677 293 697

## Liburuaren txokoa

### LIBURUTEGITIK ANTOLATU DIREN EKINTZAK:

Apirilaren 2an, Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzen da, Hans Christian Andersen-en jaiotza oroitzeko. Apirilaren 23a, Nazioarteko Liburuaren eguna da. Egun hau, Miguel De Cervantes, William Shakespeare, Garcilaso de la Vega eta Josep Pla hil zireneko eguna da. Hori dela eta, 1995ean Unescori egun hori Liburu eguna izendatzeko eskaera egin zitzaion. Erantzuna baiezkoa izan zen, eta geroztik, zenbait udaletxe, liburutegi, eskola eta elkarteek ekintza ezberdinekin ospatzen dugu egun hori.

Itsasondon, aurtan ere, lehiaketa batekin ospatu dugu. Itsasondoko irakurle guztiek parte hartu ahal izan dute, eta beraiei familiako kideak edota lagunak bildu dituzte. Ondoren, herriko liburu bat hautatu eta sakelako telefonoarekin edo argazki kamerarekin egindako selfie bat bidali digute. Kultura batzordeak kategori bakoitzeko sari bat aukeratu eta Aste Santuetako ekintzetan emango ditu sariak.

## Euskararen atala

### Euskara txukuntzen

Gure egunerokoan, euskara erabiltzean egiten ditugun hanka sartzeen zenbait adibide. Saia gaitezen zuzentzen!

| Euskara "makarronikoa"                     | Euskara txukuna                                    |
|--------------------------------------------|----------------------------------------------------|
| ANTItabako kanpaina indartu dute bulegoan. | TabakoAREN AURKAKO kanpaina indartu dute bulegoan. |
| BAKOITZAK ikus dezala zer egin.            | NORBERAK ikus dezala zer egin.                     |
| Baimen BAT behar da.                       | BaimenA behar da.                                  |

### Gipuzkoako herrien datu soziolinguistikoak:

Gipuzkoako Foru Aldundiak aurreko urtean argitaratu zituen 1986-2011 urteen arteko Gipuzkoako herrien datu soziolinguistikoak. Interesa duzenok lotura honetan aurkituko dituzue Itsasondokoak ere: [www.gipuzkoaeuskara.net/eu/datu\\_soziolinguistikoak](http://www.gipuzkoaeuskara.net/eu/datu_soziolinguistikoak)





## 2016ko egutegia osatzeko argazki bilduma

Dakizuen bezala, aurtan, 2015ean, 400 urte igaro dira Itsasondo Ordiziatik independizatu zela. Hori dela eta, 2016ko udal egutegia osatzeko, ahalik eta argazki zaharrenak bildu nahi ditugu. Hasi etxeko txokoak astintzen eta argazki zahar-zaharren bat bilatuz gero ekarri udaletxera. Eskaneatu eta berriz bueltatuko dizuegu originala.

### APIRILAK

- 1: Aste Santuetako kanpaina.
- 2: Haur Liburu Eguna.
- 15: «Euskal Herria, ezkutuko zorra» Ongizate lan taldeak antolatuta dokumental emanaldia.
- 18: Makrobiotika ikastaroa Bizi Nahi elkarte.
- 20: Lurralde Antolamenduko lan-taldearen bilera, 19:00etan, udaletxean.
- 21: Ongizate lan-taldearen bilera, 19:00etan, udaletxean.
- 22: Herri Bizitza lan-taldearen bilera, 19:00etan, udaletxean.
- 23: Liburu Eguna.
- 25: Bizikletan irteera.
- 29: Eskualde mailako proiektuak erabakitzeke Parte Hartze prozesua, 19:00etan, udaletxean.
- 30: «Mariposas en el hierro» dokumentalaren emanaldia, Ongizate lan-taldeak antolatuta.
- 30: Bingoa jubilatuen elkarte.

### MAIATZAK

- 2-3: Urkiko Santikutz jaiak.
- 6: Arnasguneen tailerra; Itsasondon euskararen erabilera aztertzen.
- 10: Herri Urrats.
- 13: Arnasguneen tailerra; Itsasondon euskararen erabilera aztertzen.
- 16: Makrobiotika ikastaroa Bizi Nahi elkarte.
- 8: Lurralde Antolamenduko lan-taldearen bilera, 19:00etan, udaletxean.
- 19: Ongizate lan-taldearen bilera, 19:00etan, udaletxean.
- 20: Herri Bizitza lan-taldearen bilera, 19:00etan, udaletxean.
- 23: Oriora irteera.
- 28: Bingoa jubilatuen elkarte.

### EKAINAK

- 7: Eskola Txikien festa Gabirian.
- 8, 10, 15 eta 17: Dantza entseguak.
- 13: Herri Eguna.
- 15: Lurralde Antolamenduko lan-taldearen bilera, 19:00etan, udaletxean.
- 16: Ongizate lan-taldearen bilera, 19:00etan, udaletxean.
- 17: Herri Bizitza lan-taldearen bilera, 19:00etan, udaletxean.
- 19: Eskola festa.
- 23: San Juan festa.
- 25: Bingoa jubilatuen elkarte.
- 29: Udako kanpainaren hasiera.

## Telefono interesgarriak



**Udaletxea** 943 881 170  
 • Gizarte Langilea  
 • Udal Arkitektoa  
 • Epaitegia

**Haurreskola** 943 164831  
**Herri Eskola** 943 887704  
**Arbel-Aitz Elkartea** 943 881339  
**Lurdes Janari Denda** 943 885236  
**Arrastoa Botika** 943 882148  
**Medikuarenean Txanda Hartzeko** 943 007635  
**Kaxintane Taberna** 606 756551  
**Nautiko Taberna / Izaskun Hotela** 943 880012  
**Izaskun Ileapaindegia** 943 160285

**Sasileta** 943 161555  
**Traste Zaharrik** 943 161590  
**Taxi (Ordizia)** 943 881486

## itsasondo2.0

Herriko Aldizkaria (( 28. zk )) Apirila-Ekaina 2015

### Ale honetan parte hartu dutenak honakoak dira:

Ainara Urteaga  
 Aranzadi Elkartea  
 Axier Bazaga  
 Belen Mendizabal  
 Bizi Nahi jubilatue elkarte  
 Danel Etxeberria  
 Ekaitz Arruti  
 Enma Arrondo  
 Eskolako haurrak  
 Erkuden Mendizabal  
 Haurreskolako Hezitzaileak  
 Iñaki Aizpuru  
 Itsasondoko Gazte Taldea  
 Iturritxiki Guraso Elkartea  
 Jose Luis Aranburu  
 Juanan Jimenez  
 Maite Lasa  
 Mertxe Orte  
 Mikel Mendizabal  
 Rosi Noguera  
 Rut Gomez  
 Unai Aldasoro

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, ko-  
 rreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean  
 jaso nahi baduzu, jarri gurekin harrema-  
 netan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua:  
 SS-297-2010

ISSN:  
 2171-5572



**GOGORARAZTEN DIZUEGU  
 HURRENGO ALEA  
 EKAIANEAN IZANGO  
 DUZUTELA ETXEAN**